



**“Gogor lan eginda  
helburuak lortzen direla  
erakusten du ‘Sin Límites’  
dokumentalak”**

Patxi Usobiaga Lakuntza  
Eskalatzailea • 19

**Sapuetxe botatzeko bidean  
pauoa eman dute udalak eta  
URAK, hitzarmena sinatuta**

**Durango** | Etxe okupatua bota eta zubi berria eraikiko dute, instituzio bakoitzak 425.000 euro ipinita. • 5



# Antzerkigile konprometitu baten agurra

Alaia, kementsua, sortzailea eta konprometitua. Horrela definitzen dute Jose Martin Urrutia 'Txotxe' bere ingurukoek. Artista elgoibartarrari esker, antzerkiak hainbat belaunaldi markatu ditu Kurutziaga ikastolan eta baita Karrikan ere. Joan zen domekan hil zen, gaixotasun baten ondorioz. Aurreko gauean Eneko Sagardoyk Goya saria eskaini zion. • 2-3. orrialdea

TXELU ANGOTIA

**Elorriko  
Gaztetxearen  
30. urteurrena  
ospatuko dute**

**Elorrio** | Hainbat ekintza antolatu dituzte urte osorako, Elorriko Gaztetxera belaunaldi berriak erakartzeko asmoz.

**9. orrialdean**

**DHEO** DURANGO  
Hizkuntza Eskola Ofizial  
Eskola Ditziala de Idiomas

**2018ko matrikula librea  
ZABALIK**

On-line  
Otsailaren 15eko 10:00etatik  
Otsailaren 28ko 13:00etara  
36,18€

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net  
94 620 33 42 - 94 681 66 45





# Milaka gazte antzerkiagaz ilusionatu zituen 'titiriteroa'

Jose Martin Urrutia 'Txotxe' ezagutu zuten lankide, ikasle eta lagunek elgoibartarraren pasioa, hurbiltasuna, inplikazioa, adiskidetasuna eta iritzi kritikoa ekarri dituzte gogora

**DURANGO** • A. MALDONADO/ J. GUENETXEA  
Irakaskuntzan kultur proiektu ilusionagarri bat sortzea ez da erraza. Bada, horixe lortu zuen Jose Martin Urrutia Txotxek Kurutziaga ikastolan. 13-14 urteko nerabeak egitasmo baten parte hartu gura izatea, inplikatzeko, sortzeko, adierazteko. Durangon antzerkigintzan erreferente den artista domekan hil zen, 56 urte zituela, gaixotasun baten ondorioz.

80ko hamarkadaren hasieran Elgoibartik Durangora etorri zen 'titiriteroa' zen Txotxe. Taupada eta Ekekei taldeetan aritutako antzezle eta sortzailea zen. Baina proiektu hori antzerkigintzatik harago joan zen. Euskara landu eta bultzatzeko tailer moduan hasi zena, gai transbertsal bihurtu zuten. Musika, dantza eta plastika ere uztartu zituzten. Elena Fernandez andereñoa jubilatuta dagoen arren, urte asko eman zituen Txotxegaz elkarlanean, bai ikastolan eta baita Karrika taldean ere. Fernandezek hunkituta gogoratu ditu elgoibartarragaz antzerkigintzan eman zituen lehen pausoak. "1986an Pili Elorriaga zuzendari zela, opari izugarria egin zidan. Ni tutore moduan nengoan, eta plastika eta antzerkia irakasten hasi nintzen. Niretzat gauza berria izan zen", dio andereñoak. Pixka-

naka Txotxeren unibertso magikoa ezagutzen hasi zen.

Antzerkiko zuzendaria izateaz gain, hezkuntza bereziko irakaslea zen Txotxe. Arlo horretan ikasle bakoitzagaz izan zuen inplikazioa nabarmentzen dute bere lankideek. "Pertsona moduan, kausa galduen defendatzailea zen. Marjinetuen eta arazoak zituzten umeen defendatzailea zen. Beti laguntzeko eta lan egiteko prest. Beti beraien aldeko apustuak egiten zituen. Gaur egun antzerki proiektuak funtzio hori du oraindik". Izan ere, Fernandezek iritziak, "antzerkia erabiltzen zuen gelan sentitzen zituen desorekak orekatzeko. Baztertuta zegoenari pertsonaia bereziak sortzen zizkion, edo protagonista izateko aukera ematen zion". Antzerki proiektua deskubrimendurako eta hazkunde pertsonalerako aitzakia zen. "Antzerkiaren bidez, ikasle bakoitzak barruan zituen gauza ezkutatuak ateratzen hasten zen, harra tximelata bihurtzen denean bezala", dio Fernandezek.

## Denen gogoan

Sumatzen da Txotxeren falta ikastolan. Elgoibartarra agurtzeko, ikasle, lankide, guraso zein ikasle ohiek mezuak idazteko murala jarri dute.

ANBOTOK ere bere kolaboratzaile estimatuaren hutsunea igarriko du.

Baina, Kurutziagan ez ezik, Durangon ere nabarmen eragin zuen Urrutiak. 1998ko irailean lagun talde bat noraezean zebilen institutuan, antzerki taldea egin guran. Euskararen normalizaziorako proiektu bat zen, arduraduna behar zuen, eta han agertu zen Txotxe. Eta horrela jaio zen Karrika antzerki taldea. 'Titiriteroa' izatearen zentzua karrikakideen DNAn txertatu zuen hasiera-hasieratik. Horrela, lehenbiziko obra, institutuko areto nagusian egin beharreko erreforma izan zela akorduan dute taldeki-

deek. "Aretoko erreforma guztia egin genuen; manta buruan ezarri, eta lanera" gogoratu dute, emozio-naturik. Bi hamarkada geroago, antzerki taldea erreferentea da Euskal Herriko antzerkigintza amateurra, eta egun San Agustin kulturguneko talde egoiliarra da. "Txotxeren lorpena da hori, bere talentuari eta lanari esker". Karrikatik 200 kide baino gehiago igaro dira urteotan.

Talde honetako kide da Eneko Sagarroy aktorea. Joan zen domekan, Goya jasotzerakoan, aktore durangarrak bere sustraiak presente izan zituen. Besteak beste, Karrikari eta Txotxeri eskaini zien saria. "Antzerkia eta furgonetak kargatzen irakatsi zidaten, eta horregatik nago ni hemen", gogoratu zuen.

"Norberaren potentzialtasuna aurkitzen maisua zen" diote Karrikakoek. Norbanako bakoitza zainduz, obra bere osotasunean lantzea zuen gustuko Txotxek, eta kolektiboari ematen zion garrantzia ere azpimarratu dute taldekideek. "Pros-

tibuloan, adibidez, bakoitzak bere pertsonaia landu behar izan zuen".

Bi hamarkadako ibilbidea erronkaz erronka egin ditu Karrikak. Desafio horien baitan, antzezlanetan pil-pilean dauden gaiak lantzea egon da, adibidez. "Gaiak transbertsaliki lantzen maisua zen", diote.

Marraztu ere egiten zuen Txotxek. "Kontatu zigun, Ameriketara eginiko bidaietan, behin baino gehiagotan lo-lekua eta jatekoa marrazkien truke lortu zuela". Egunerokotasunaren zurrumbilatik kanpo, oporraldiak antzezlanetako testuak borobiltzeko ere baliatzen zituen. Belarri ona zuen gainera Txotxek, eta musika-aukeraketa zorrotza egiten zuen antzezlanetarako. "Negoziaziorako tartea uzten zuen, baina argi zuen zer zegokion obrari; ziur gaude idazten zuen bitartean, pasarte horri zegokion musika entzuten zuela". Beste gauza askoren artean, antzerkirako afizioa sartu zuen Txotxek Kurutziagan, Karrikan eta Durangon.



TXELU ANGOITIA



UNAI  
ITURRIAGA ZUGAZA-ARTZA

**Ikasle ohia**

*Liliput.* Bernardo Atxagak idatzitako antzezlan izan zen gurea, Txotxek ikastolan egin zuen bigarrena, 1987an oker ez banabil. Kurutziagako webgunean begiratu dut eta bitxia da, ze, geroztik egindako antzezlan guztiak Bertan Sortuak direla dio, ez dator autorearen izenik. Jakin badakigu nor zen egilea. Txotxeren kartel bat kalean ikusi eta kilometrora ere haren eskua ezagun zen lez. Eskuzko tipografia hori, trazua, akuarela horiek Photoshoparen garaietan... Karrika. Kalea. Herria. Horra bere obraren plaza eta helburua. Handiaren garaietan, *Liliput*. Ez adiorik.



ENEKO  
SAGARROY MUJIKA

**Karrika**

Emakume beltz bat, bizikletan, errekatik datorren sua, zigarro kea, kilonbo bat. Azal zimurra, beltzarana, koleta eta ardoa. Begi handi bi, barrura begira jarriz aurrekoa. Akuarela eta arkatza. Beti ezin daitekeela ondo egon. Borroka, bronka, deserosoa. Eta izarrak marraztu dizkiguzu sabelean, oinetan. Izarrak eman dizkiguzu, nahigabe baina nahita. Bizi bat. Bizi bat. Norbera bere sentiarazi duzu, inor zu bihurtzeko asmorik gabe. Eta maite zaitugu, Janis Joplin, Tom Waits, Lauaxeta, Shakespeare, eta denak batera edo inor ez. Nor izan zaren azaltzea zaila da. Dena eman zenuen eta dena utzi diguzu. Topatuko gara argia itzaltzen den bakoitzean. Ondoan. Izar bat bihotzean, denona.



GOTZONE  
DUÑABEITIA KINTANA

**Lankidea**

MAITE  
OLEA GARAI

**Lankidea**

Aniztasunaren koloreak elkartu gintuen ikastolan. Irakaskuntza munduan utzitako aztarnak ere anitzak izan dira. Bere eguneroko lana hezkuntza premia bereziko ikasleekin

eta antzerki mundua beste guztiekin. Orientazio departamentuan urteetan aritu izan gara elkarrekin lanean eta, dudarik gabe, bere lema ondo geratu da gure artean. "Lehenen-

go, pertsona, eta ondoren, ikaslea; lehenengo, gaztea, eta ondoren, ikasketak". Nahiz eta sarritan gai sakonak izan esku artean, maisua zen egoerak umore puntu batez heltzen. Askotan gertatzen den moduan, gure artean ere eztabaidak sortzen ziren, baina berarekin erraz lortzen zen egoerari buelta eman eta ekinean jarraitzea. Bere izaera askea ondo baino hobeto definitzen dute hain gogoko zuen Benedettiren hitzek:

"... Ateak zabaldu,  
Zerrailak kendu,  
babesten zaituzten  
harresiak  
alde batera utzi,  
Bizitza bizi eta erronkak  
onartu, ..."

Bizitzan eta lanean zurekin gozatutakoa guregan geratuko da betiko.





TXELU ANGOITIA



ELENA  
FERNANDEZ GOROSABEL

Lankidea

Txotxek munduarenganako begirada bikoitza zuen. Bere obretan ume baten begirada ikus daiteke. Antzerki lan bat amesten zuenean, bere imajinarioak fantasiaren mundura hegaz egiten zuen. Beste alde batetik, pertsona heldu baten bihotzetik begiratzenean, oso konprometitua zen. Injustiziei, gatazkei, desordenei, desorekei... aurrez aurre begiratzenean. Gai hauek obretara ekartzen zituen umore handiz. Horregatik, bere obrak umeekin landu arren, beti oinarri sakon eta kritikoa zuten. Horregatik zen magikoa. Eskerrik asko Txotxe!



IDOIA  
SOPELANA PETRALANDA

Lankidea

Kolaboratzen hasi nintzenean harritu ninduen nire ideiak aintzakotzat hartzen zituela, eta animatu egiten ninduela. Antzerki tailerraren ardura hartu nuenean, akorduan dut oso ondo elkar ulertu genuela. Attrezoan "akaberen erregina" nintzela esaten zidan. Gaitzizanak jartzen artista zen. Bere mundua antzerkia zen, bai ikastolan eta baita Karrikan ere. Lan bat amaitu orduko, beste bat zuen buruan. Sortzailea zen, bai gidoietan eta baita eszenografian ere. Attrezoan nik jarduten nuenez, pieza berezi bat edo bi beti bereak ziren.



TXELU  
ANGOITIA GUTIERREZ

Argazkilaria

Bizimodu bizia izan genuen 80ko hamarkadan. Donostia errebeldea zen eta hilezkorraginela uste genuen. Gero, urteak euria bezala erori ziren. Karrikan egin genuen bat berriro, eta denborari ihes egin geniola zirudien. Hizkuntza bera hitz egiten jarraitzen genuen. Zurekin gauzak errazak ziren. Joan egin zara, eta Corto Malteseekin batera irudikatzen zaitut, Hegoaldeko Itsasoetara bidean nabigatzen. Gogoratzen ez ditugunean baino ez ei dira hiltzen pertsonak. Baiteke hala izatea, baina horrek ez du nire bihotzeko samina arintzen. Agur, Txotxe.



JONE  
GUENETXEA ARRINDA

Ikasle ohia

Negu Gorriak taldearen Radio Rahim abestiaren lehen akordeak entzuten dira. *Amets baten bila* antzezlanaren martxan da. Paulek aulkiaren gainetik salto egin du. Funtzioa hastera doa. Atzo izango balitz bezala tatua turik gelditu da gure oroimenean institutuko aretoan egingadako estreinaldia. Sormenaren lurraldera eramanean gintuzun. Amesten, ilusionatzen, errespetatzen, antzezten irakatsi zenigun. Nerabe talde baten gaitasunetan sinetsi zenuen, guk geuk ere sinesten ez genuen sasoiaren. Horregatik, gure bihotzetan izango zara, beti.



EUNATE  
ZARRABEITIA SALTERAIN

Musikaria

Txotxek esana da istorio bakoitzak bidaia bat dela. Hasten gara eta ez dakigula non bukatuko den. Bukaeran konturatzen gara zera egin duguna. DOIA... esaten zidan, *Juanto Lapramendiko Kilkeraren* bidaian, bukaera argi ikusten ez nuen bakoitzean. Azken txanpan, *Deshakesperazioaren* bidaialagun izateko aukera oparitu digu, ohore bat; eta BADOA... Baina, datozen istorioetan, bere magia gure eszenatokian, gure musikan, gure bihotzetan izango da betirako. Eskerrik asko, Txotxe!



**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Bertso eta abesti feministen gazte lehiaketa sortu dute Durangon, gaia lantzeko bide berri bat zabaldua. 16 eta 30 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahaliko dute udalak antolatutako lehiaketan. Otsailaren 23ra arte bidali ahaliko dira grabazioak [m8lehiaketa@gmail.com](mailto:m8lehiaketa@gmail.com) helbidera, eta martxoaren 1ean hamar finalistak berri emango dute. Horiek martxoaren 10ean Andra Marian egingo den kontzertuan jendaurrean aurkeztuko dituzte euren lanak. Bertso eta abesti onenari 600na euro emango dizkiete, eta publikoaren sarietan hautatuei, 500na.

**Bertso eta abesti onenari 600na euro emango dizkiete, eta publikoaren sarietan hautatuei 500na**

Pilar Rios alkateordeak azaldu du “sorkuntza eta adierazpen feministak sustatzeko” ipini dutela martxan lehiaketa. Musika ere

# Bertso eta abestien gazte lehiaketaren bidez, “era ludiko eta desberdin batean” landuko dute feminismoa Durangon

16 eta 30 urte arteko gazteek parte hartu ahaliko dute; martxoaren 10ean kontzertua eskainiko dute Andra Marian

adierazpen matxisten eremu izan ohi dela jakitun, espazio horretan ekarpen feminista egitera doaz. Andra Mariko kontzertuagaz, ka-lean ere eduki feministak zabaltzea gura dute. Itsasne Loroño teknikariaren esanetan. Usue Martinez abeslari durangarra da ekimenaren bultzatzaileetako bat, eta ekimena “era ludiko eta desberdin batean hausnarketara eramateko” tresna lez ikusten du. Hain zuzen ere, gazteak aktibatzea da helburu nagusia, belaunaldi berriak gaur egungo egoera aldatzeko gakoa izango direla uste dutelako.

**Laguntza jasota**

Durango Musika Eskolaren, Bertsozale Elkartearen eta Berrdintasun Kontseiluaren laguntza eduki dute lehiaketaren oinarriak finkatzeko.



Loroño, Rios eta Martinez, astelehenean eskainitako prentsurrekoan.

# Madrildarrak dira atzerritik Durangora bisitan datozen turisten gehiengoa

Turismoa %30 hazi da, 4.239 bisita gehiagoz; 18.490 bisita izan ditu guztira 2017an



Balorazioa prentsaren aurrean egin zuten Naveranek, Ocejak eta Irigorasek.

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Durango turismoa %30 hazi da 2017an, 4.239 bisita gehiagoz. Hain zuzen, 18.490 bisita jaso ditu Turismo Bulegoak. Horietatik 10.090 kontsultei lotutakoak izan dira, eta 8.400 zerbitzuen eskaintzagaz lotutakoak. 2015agaz lotuta, kasik %50ekoa da hazkundera. Gorakadaren ondorioz, udal arduradunek balantze “oso positiboa” egin dute. Madrildarrak dira atzerritik bisitan datozen turisten gehiengo: 2.650.

Aipagarria da bisiten zati handi bat barneko turismoari lotutakoa dela, Euskal Herrikoa: 7.050 euskaldun etorri ziren 2017an herria ikustera. Madrildarrak kontuan hartu-

ta, estatutik etorritakoak 5.940 dira guztira. Kataluniatik 569 etorri ziren, Frantziatik 490, Alemaniatik 177... Durangok 222 plaza ditu hoteletan, eta nabarmenezkoa da urte osoan 33.900 plaza erabili zirela. 3.779 bisita turistiko audiogida bidez egin zituzten, 1.500 bisita gidekin, eta beste 1.000 era pribatuan antolatutako gidekin.

Aitziber Irigoras alkatearen ustez, hazkundera agerian uzten du Durangok “gero eta interes handiagoa” sortzen duela. Baina, aparte, bisitarien eskakizunetara moldatzeko gaitasuna ere hazkunderaren oinarrian dagoela adierazi du alkateak. Iker Oveja turismo zinegotziak turismoaren arlotik egindako lana baloratu du.

Bestalde, turismo familiarra indartu guran, *Saltoka* izeneko jolas bat sortu dute umeentzat, bulegoan 3 eurotan salduko dutena. Natalia de Naveran teknikariak aurkeztu zuen prentsurrekoan.

## Martxoaren 10ean izango da Durango Ardo Saltsan azokaren 11. edizioa

**DURANGO • M.O.**

Delicatessen produktuen eta ardoaren zale direnek egutegian gorri markatuta izaten duten azoka da Durango Ardo Saltsan, eta aurtengo dataren berri eman dute antolatzaileek. Martxoaren 10ean egingo da, dagoeneko 11. edizioa izango dena. 16 euroko sarrera ordainduta, makina bat upategitako ardoak dastatu ahaliko dira Landako Gunean, 11:00etatik 20:00etara bitartean. Gainera, deneriko jakiak egongo dira salgai, eta miniatuzko sukaldaritza eza-gutzeko aukera ere egongo da.

Urtero, inguruetako zein kanpoko jende ugari erakar-tzen du azokak. Sarrerak interneten edo egunean bertan lortu ahal dira.

**anboto** komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko otsailaren 12a  
16. urtea - 708. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabbari.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabbari.  
**Publizitatea:** Eneritz Urrutibeaskoa Elordi eta Alazne Salcedo Artetxe.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabbari, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasesumaga Guezuraga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# Sapuetxe botatzeko hitzarmena sinatu dute udalak eta URA agentziak

Eraikin okupatua eraitsi eta Montevideoko erreka gaineko zubia berrituko dute proiektuagaz; instituzio bakoitzak 425.000 euro ipiniko ditu datozen urte bietan



Sapuetxe 1999az geroztik dago okupatuta, Montevideo kalean.

## DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Sapuetxe espazio okupatua botatzeko hitzarmena sinatu zuten atzo Durangoko Udalak eta URA agentziak, eta behin finantziarioa adostuta, badirudi laster amaituko dela

gaztetxe izandakoaren bizia, asfaltatik iragarrita zegoena. Eraikin okupatua bota, eta Montevideoko erreka gaineko zubia ere berrituko dute obrekin. Instituzio bakoitzak 425.000 euro ipiniko ditu 2018 eta

2019. urteen artean. Aitziber Irigoras alkatea eta Mari Jose Balier eta Pilar Rios alkateordeak egon ziren hitzarmena sinatzeko batzarrean.

Erreka gainean egoteagatik, eraikina ordenazioz kanpo dago;

Horregatik, botatzea onartu zuen udalak osoko bilkuran, 2011n. Baina, eraisketarako finantziarioa ez da lotuta egon orain arte. Eraikina jabego pribatukoa da, baina URA agentziak (Eusko Jaurlaritzaren menpekoa) eta Iparraldeko Ur Konfederazioak ere badute bere gaineko ardura, erreka gainean dagoelako.

**Eraikina ordenazioz kanpo dago; horregatik, botatzea onartu zuen udalak 2011n**

## 1999tik hona

1999an okupatu zuten Montevideo kaleko eraikina hainbat gaztek, Durangaldean bizitako gaztetxeen okupazio sasoi bete-bete. Duela pare bat urtera arte herriko gaztetxea izan zen. Orduan, kultur espazio zabalago bati hasiera ematea erabaki zuten bertako kideek, gazteen sektoreaz harago heldu gura zuena.

2016ko udal aurrekontuan ere eraisteko diru partida bat sartu zuen gobernuak. "Bizirik dagoen eraikin pribatu bat botatzeko, diru publikoa erabiliko dute", kritikatu zuten orduan Sapuetxeko kideek.

## Argia sarri joan da Durango erdigunean, Iberdrolaren arazo teknikoengatik

### DURANGO • M.O.

Elektrizitate arazo handiak eduki dituzte aste honetan Durangoko erdigunean, Iberdrolaren arazoengatik. Montevideo, Uribarri, Kanpatorrosteta, Azoka eta Juan Mari Altuna kaleetan eragin du, batez ere. Astelehen iluntzean gertatu ziren lehen etenaldiak, eta zinemako egitaraua bertan behera utzi behar izan zuten, esaterako. Gozoki-denda batean ere ate automatikoa zarratu, eta eskuz zabaldu arte barruan egon ziren hainbat guraso, ume eta guzti.

Antza denez, hainbat elektrizitate koadro zaharkituta zeuden. Martitzenean, elektrizitate sorgailu bat ipini zuten behin behinean, argia bermatzeko. Baina sorgailu hori ere matxuratu egin zen. Eguazten goizaldean argia berreskuratu, eta instalazioak ordezkatuta zituzten beharginek arratsalderako.

Aurretik, Landakon eta beste zonalde batzuetan ere argi etenaldiak egon izana salatu dute herritarrek sare sozialetan.

# Frontoia erabiltzeagatik orduko lau euro ordainduko dute iurretarek

Olaburu frontoiaren instalazioak erabiltzeagatik prezio publikoen ordenantza onartu du Iurretako Udalak; herriko elkarte eta taldeek doan erabili ahal izango dute



Iurretan errolatu gabekoek sei euro ordaindu beharko dituzte ordu bakoitzeko frontoiko instalazioak erabiltzeagatik.

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Olaburu frontoiko instalazioak erabiltzeko, prezio publikoen ordenantza onartu du Iurretako udalbatzak, aho batez. Ordenantza horren arabera, iurretarek lau euro ordaindu beharko dituzte frontoia erabili gura duten ordu bakoitzeko. Herrian errolatu gabekoek,

ostera, sei euro ordaindu beharko dituzte.

Hala ere, frontoiaren ezohiko erabilera egiten denerako, bestelako prezioak adostu dituzte. "Adibidez, aisialdi talde batek frontoia erabili gura badu, dena delako jardura bat garatzeko, lehenengo lau orduetan 20 euro ordaindu behar-

ko ditu orduko. Bosgarren ordutik aurrera, 13 euro", azaldu du Iñaki Totorikaguena alkatea. Herrikoak ez diren elkarte edo taldeen kasua izango da hori, Iurretako elkarte eta taldeek doan erabili dezakete-eta frontoia. Araudia hilabetez jarriko dute jendaurrean, behin betiko onartu baino lehen.

## Aiartzaguena eta beste 41 absolbitu ditu epaileak, eta zortzi gazte zigortu

### IURRETA • MARKEL ONAINDIA

2015ean Madrilen garatutako epaiketa batean protesta egiteagatik, urtarrilean Madrilgo Auzitegi probintzian epaitutako 50 lagunetarikoz zortziri isuna jarri die epaileak. Gainerakoak zigorretik libratu dira. Tartean, Eñaut Aiartzaguena iurretarra.

Zigortutako gazteak 2015eko epaiketa hartan auzipetuak zirenak dira. Zazpi gazteri 1.500na euroko isuna ipini diete, eta zortzigarrenari 1.700 eurokoa. Duela hiru urteko epaiketako une batean, herri harresi bat irudikatu zuten bertan bildu zirenek, egun batzuk lehenago egondako atxiloketa batzuk salatzen.

## Irudien dirua, laguntzeko

Aiartzaguena gazte iurretarra marrazkilaria da. Epaietarako sordutako gastuei eta isun posible bati aurre egiten laguntzeko, irudi batzuk sortu eta saldu zituen. Absolbitu egin dutenez, gastuetatik aparte gertzen zaion dirua zigortuen alde emango du.

## Kaleko animaliei jaten ez ematea eskatu die udalak herritarrei

### MALLABIA • AITZIBER BASAURI

Animaliekin izan daitezkeen jokabideen eraginez sortutako kalteengatik isunak jartzeko aukera aztertzen dabil Mallabiko Udala. Herritar batzuek jaten ematen diete animaliei, kaleko katuei batez ere, eta horrek beste herritar batzuen keaxak sortu ditu. Halaxe azaldu du Igor Agirre alkatea. Azaldu dutenez, Mikel Zarate kalean dute arazoa, batez ere. "Kaleko katu asko ditugu herrian, eta leihotik edo balkoitik botatzen diete janaria. Lurrera edo kotxeen gainera jausten da janaria, eta horrek eragozpenak sortzen ditu", adierazi du alkatea. Janaria botatzen duten herritarrei horrelakorik ez egiteko ohartarazi die udalak.

## Txakurren kakak

Txakurren kakak batzen ez zirela-eta, udalak ohar bat jarri zuen jolas-parkearen inguruan udan. "Umeak ibiltzen direla-eta, txakurren kakak batzea eskatu genuen, eta izan zuen eragina", azaldu du Agirrek.



# Gasteizerako linea hobetuko dute, ordutegian zerbitzu gehiago eta autobus berriak ipinita

Alegazioak onartuta, astegunetan hiru autobus gehiago irtengo dira noranzko bakoitzean, eta asteburuetan bi gehiago

## DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Gasteizerako autobus lineak hobekuntzak edukiko ditu hile batzuk barru, lizitazio berria kaleratzen denean. Izan ere, 2014an eskualdeko udalek eta herritarrek egindako alegazio gehienak onartu ditu Arabako Foru Aldundiak —bera da zerbitzuaren eskumena duena—. Azken urteetan kexa askoren iturri izan da linea hori; ordutegi murrizta zuela eta autobusen egoera ez zela ona salatzen zuten Durangaldeko erabiltzaileek. Astegunetan hiru autobus gehiago irtengo dira noranzko bakoitzean, eta asteburuetan bi gehiago.

Besteak beste, ikasleen eta beharginen beharrianak hartu dituzte kontuan alegazioetan.

Astegunetan beste autobus bana eskainiko dute goizez, eguerdiz zein arratsaldez, eta asteburuetan bana goizez eta arratsaldez.

Bestalde, autobus flota berri-tzea izango da lizitazio berriaren baldintzetako bat. Behar bereziak dituztenentzat ere egokituta joan beharko dira ibilgailuak.

Emaitzagaz pozik agertu dira Durangoko gobernu taldea (EAJ eta PSE) eta EH Bildu (Izurtza, Mañaria eta Otxandioko alkateak eta Durangoko zinegotziak). Durangoko gobernuak Arabako Aldundiagaz edukitako elkarlana eskertu du. EH Bilduren ustez, ostera, aldundiak “denbora gehiegi” eman du alegazioei erantzuteko.



Autobus flota berria izatea baldintzetako bat izango da esleipen berrian.

ORDUTE-GIA	ASTE- GUNA- K	ASTE- BURUA- K
DURANGO/ GASTEIZ	06:30	
	07:10	
	07:45	08:40
	09:20	11:50
	12:45	14:10
	13:45	16:35
	15:10	19:40
	17:15	22:00
	18:15	
	20:50	
GASTEIZ/ DURANGO	06:45	
	08:10	
	09:00	07:30
	12:15	10:00
	13:55	13:00
	14:25	15:20
	15:25	17:50
	16:25	20:50
	19:30	
	22:00	

## ATE IREKIAK

### UNIBERTSITATE GRADUAK

Oscar Escallada Lopez

Laudio. Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza, 4. maila

GOI ESKOLA  
POLITEKNIKOA

ORONA IDEO • MARTXOAK 10

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

---

GOIERRI • MARTXOAK 17

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA  
ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA • OTSAILAK 17

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

---

ARETXABAETA • OTSAILAK 17

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BILBAO • MARTXOAK 8

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

---

BIDASOA • MARTXOAK 10

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

---

OÑATI • MARTXOAK 17

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA

Basque Culinary Center

---

DONOSTIA • OTSAILAK 15

OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

902 110 436  
www.mondragon.edu/prest

## Elurraren eragina, batez ere Trabakuan eta Kanpazarren

Gaur iluntzean elur maila 200 metrotara bajatuko dela iragarri du Euskalmetek; bihar 300 metrotara, asko jota



Atzo arazo handiak izan zituzten Osma auzotik Trabakurantz joateko.

## DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Aspaldiko negu gogorrenetakoa bizitzen gabiltza Euskal Herrian, eta aste honetan ikusi dugu eguraldirik kaskarrenetakoa. Tenperatura baxuak izan dira, eta elurra ere egin du tarte batzuetan, atzo 100 metrora baino bajatu baitzen elur maila eguneko momentu batzuetan. Otxandio izan da, ohi denez, elurrik gehien zuritu duen eskualdeko herria. Urkiolaz bestalde, eguaztenez mara-mara bota zuen, eta kaleak eta inguruak zuri-zuri zeuden.

Atzorako zegoen aurreikusita elur prezipitaziorik handiena, eta iragarpenak ez zuen huts egin. Trafikoari dagokionez, Trabakua eta Kanpazar mendateetan sortu

ziren arazorik nabarmenenak. Goizean, zenbait orduz zarratuta egon behar izan ziren. Urkiolan ere gogotik egin du elurra egunotan, baina momentu batez ere ez dute itxi. Hori bai, makinak

Otxandio izan da,  
ohi denez, elurrik  
gehienez zuritu duen  
eskualdeko herria

gora eta behera ibili dira elurra errepidetik kendu eta trafikorako libratzeko. Gaur iluntzean elur maila 200 metrotara bajatuko dela iragarri dute, eta bihar 300 metrotara, asko jota.



# Mañariko elkarteek herritar gehiagoren konpromisoa behar dute ekintzak bultzatzeko

Jai batzordean, esaterako, jaiak antolatzeko gero eta jende gutxiago dagoela azaldu dute udalagaz egindako batzarretan



Udalak hainbat batzar egin ditu herriko elkarteekin aurrekontuetan euren beharrianak jasotzeko asmoz.

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Udalak hainbat batzar egin ditu herriko elkarteetako arduradunekin. Euren premiak entzutea eta horiek aurrekontuetan jasotzea izan da helburua. Herriari bizia ematen dioten eragileekin harreran zuzena izan gura zuten, ondoren aurrekontuetan ahalik eta irtenbide egokienak eskaintzeko. Kezka nagusia, ordea, ez dago diru kopuruari lotuta. Herri askotan errepikatzen den ardura azaleratu da Mañariko batzarretan ere: ekimenak antolatzeko eta, kasu batzuetan, eurretan parte hartzeko konpromisoa hartuko duen herritar gehiagoren beharra edo laguntasuna.

Garai berrietara egokitzen ari den gizartean, herri askotan ematen den kasua da. Kontua da mañariarrek kezka hori elkarrekin hausnartzeko modua izan dutela, udalak bideratutako batzarretan.

**Jai Batzordeak urtero batzar batera deitzen du jendea batzeko helburuz, baina ez duela funtzionatu izan diote**

Jai batzordea da, beharbada, arazo horren ondorioak gehien pairatzen ari dena. Urteak aurrera joan ahala, batzordean dabilen jende kopurua gutxitu egin da. 12

bat laguneko hasierako taldea hirulaukora murriztu da. Lan kantitate bera aurrera eramateko gero eta jende gutxiago dagoela diote jai batzordeko kideek. Jendea ekimenetan parte hartzeko prest dagoela, baina ez antolaketan ardurak hartzeko. Urtero, sasoi hauetan, herri batzar batera deitzen dute, jende berria batzeko helburuagaz, besteak beste, baina deialdiak ez duela funtzionatu izan diote. Horregatik, udalagaz egindako batzarretan, diru kontua barik laguntasun falta dela kezka nagusia azaldu zuten.

Eusebi Bernaola Artatzagan pilota eskolako arduraduna da. Euren kasuan, antolaketan bai-

no parte-hartzean dute kezka nagusia. Noizean behin lagunarteko partiduak antolatzen dituzte herrian, eta, sarritan, “jendea batzea kostatzen da” egiten zaiela dio. Parte-hartze handiagoa gura luke. “Udalak urtean diru kopuru bat ematen badu gauzak antolatzeko, norberak ere erantzun egin behar du”, uste du.

Mugarra ehiza elkarte Juanlu Alberdik herri askotan gertatzen den “ohiko arazo” errepikatzen dela dio. “Gogo handiagaz antolatzen dira gauzak, baina parte-hartzea ez da gura adinakoa izaten. Jendea erakartzea kostatzen da”, azaldu du.

## Oizerako errepidea zabalik dago, berrizteko obrak amaitu eta gero

**GARAI • MARKEL ONAINDIA**

Garai eta Goiuria auzoen arteko Oizerantza doan errepidea zarratuta egon da abenduaz geroztik, konponketak egiteko egitasmo baten eraginez. Bide hori konpontzeko obretan ibili da udala, bidegurutzetik basozainen etxerainoko zatian, hain zuzen ere. Errepide zati hori Garaiko jabetzakoa da, eta berrizteko beharra ikusi zuten.

Dagoeneko amaitu dira trafikoko eragozpenak –ordura arte, Oizera joan gura zuenak Gallandatik hartu behar zuten bidea–. Gontzal Sarrigoitia alkateak adierazi duenez, duela 15 bat egunetik zabalik dago errepidea, obrak jadanik amaitu zituztelako.

## Udan Errusiako umeak hartzeari buruzko hitzaldia eskainiko dute

**ZORNOTZA • J.D.**

Beharrianen bat duten umeen alde lan egiten duen Bikarte elkarteak hitzaldia eskainiko du zapatu honetan, 11:30ean, Zornotzako auditorioan. Euskal Herri osoan lan egiten duen elkarteak helburu bi ditu: Errusiako eta Bielorrusiako gazteak udan zein neguan hemen hartzeko proiektuaren berri ematea eta gazte horiek hartuko dituzten familia berriak aurkitzea. *Los niños de Bragin* izeneko dokumentala ere eskainiko dute.

## “Egunean basotxo bat ardo hartzea da 103 urte hartzeko sekretua”

Atzo, otsailaren 8an, 103 urte bete zituen Emilia Capelastegui Orobiourrutia atxondarrak



Emilia Capelastegui senide eta Atxondoko Udaleko kideekin.

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Emilia Capelastegui Orobiourrutia atxondarrak 103 urte bete zituen atzo, eta, aitortu zuenez, “egunean basotxo bat ardo hartzea da 103 urte hartzeko sekretua. Horrek gorputza berotu egiten du eta”.

Egun Zornotzako Igurco-Orue zaharren egoitzan bizi den arren, Capelastegui Atxondoko Martza auzoan jaio zen, 1915eko otsailaren 8an. Emilia zortzi neba-arrebetatik hirugarren zaharrena da, eta bera da bizirik dagoen bakarra. Duela hiru bat urtetik hona Igurco-Orue zaharren egoitzan dago,

eta han pozik dagoela baieztatu du. “Oso pozik nago urteak, hemen, familiakoekin eta bertaratu zareten guztiokin ospatu ditudalako”, esan zuen. Atzokoa kandlei putz egiteko eguna zela esan zuen. “Gaur egiten ez badiet putz, sekula ez diet egingo”, adierazi zuen, barrez.

Capelastegui bere senitarteko eta lagunekin ospatu zuen 103. urtebetetzea. Horrez gain, Josune Irazola Atxondoko alkateordea eta Mertxe Irazabal zinegotzia ere joan ziren Zornotzan dagoen zaharren egoitzara, herritarra zoriondu eta lore-sorta bat emateko asmoz. Capelastegui, bestalde, herrira, Atxondora joateko gogoa zuela aitortu zuen. “Hankek askorik laguntzen ez didaten arren, herrira joatea gustatuko litzaidake”, esan zuen.

## Euriteek eragindako lur-jausiak oztopatzen zuen bide zatia garbitu dute

**IZURTZA • J.D.**

Azken aste bietako hainbat egun euritsuak izan dira. Egundorietako batean lur-jausi bat gertatu da Etxano auzoko baserri bide batean. Lur-jausiak bidea itxi du eta egun batzuetan ezin izan da autoz joan baserietara. Hondeatzeko makina baten laguntzagaz bide zati hori garbitu du dagoeneko udalak eta bidea libre dago. Momentuz euririk ez duela herrian beselako kalte aipagarrikeri eragin adierazi dute udal arduradunek.



# Ehunka lagun batu ziren joan zen barikuan Berrizen Jon Barcenari azken agurra eskaintzeko

Iremiñe Dantza Taldeko kideek, Jon Barcenaren dantza taldekoek, frontoian egindako agur ekitaldian parte hartu zuten



Ehunka lagun batu ziren Berrizko Olaburu frontoian.

## BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen barikuan egin zioten agur ekitaldia Jon Barcena Amezua gazte berriztarrari. Gaztearen senitarteko, lagun eta ehunka herritarrek azken agurra eskaini zioten, Berrizko frontoian, abenduaren 30ean Gorbeia mendian desagertu eta urtarrilaren 28an Urrunagako urtegi ondoko basoan hilda agertu zen gazteari.

Ekitaldia 19:00etan hasi zen arren, 18:30 ingururako Olaburu frontoia beteta zegoen, eta ehun lagunek baino gehiagok ekitaldia

kanpotik jarraitu behar izan zuten. Gaztea gogoratzeko ekitaldi hunkigarriari lore eskaintzagaz, Iremiñe dantza taldeko kideen saioagaz eta lagunek eskainitako bertsoekin eman zioten hasiera.

Miren Amurizak aurkeztu zuen ekitaldi intimoa eta Xabier Amurizak Barcenaren gurasoek eta arrebak idatzitako gutuna irakurri zuen, besteak beste. “Eskerrik asko zuri, Jontxu, gure bizitzan 19 urtez izateagatik, eman deuskuzun bizitza zure izateagatik, zure irriagatik... geurea izateagatik”,

adierazi zuten gutunean gaztearen gurasoek eta arrebak.

Bestalde, Barcenaren senitartekoek eskerrak eman zizkieten

### Familiak eskerrak eman zizkion Jon Barcena gazteari beraien bizitzan 19 urtez egotearren

lagun minei, berriztar guztiei eta Jonen lagunei, une oro familiaren ondoan egoteagatik. “Une gogorre-

tan be erakutsi deuskuzue Jonek lagun onak eta jatorrak izan dituela”, esan zuten.

Horrez gain, Zigoitiako udal eta herritar guztiei ere eskerrak eman zizkieten, Gorbeian Jon Barcenaren bila ibili zirenean laguntzeagatik. “Eskerrik asko zuengandik jasotako giza izaeragatik, gozotasunagatik eta une latzetan zuen denbora eta eskura izan duzuen gurekin konpartitzeagatik”, irakurri zuen Xabier Amurizak.

Ezagun nahiz ezezagun izanda edozein bazterretatik agertutako

guztiei eta sare sozialen bidez indarrak eman dizkieten guztiei ere eman zizkieten eskerrak.

Horrez gain, familiaren bozeramailea izan den Gorka Camarari ere eman zizkieten eskerrak. “Eskerrik asko zure bizitzaren zati handi bat eman duzulako guri egoera larri honetan aurrera egiten laguntzeko”, esan zuen ekitaldian Amurizak.

### Miren Amurizak aurkeztu zuen ekitaldi intimoan ehunka lagun bildu ziren

### Gaztearen bilaketa lanetan ibilitako lagun guztiei ere eskerrak eman zizkieten familiakoek

### Ekitaldia institutuan

Barikuan, Berrizen, familiak, lagunak eta hainbat herrikideek eskaini zioten azken agurra gazteari, eta bezperan, eguenean, bere ikaskideek egin zioten agur ekitaldia Iurretako Orobiogoitia Institutuan.

Irakasle eta ikaskideek antolatutako ekimenean ere ehunka lagun batu ziren, eta Jon Barcenaren gurasoei eta arrebari lore-sorta eskaini zioten.

Gainera, ikastetxean liburu bat jarri zuten denen eskura, Jon Barcenaren ikaskide eta irakasleek hari mezuak idazteko aukera izan zezaten. Barikuko ekitaldian gurasoei eman zieten liburua.

## BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hamabost egun igaro dira Jose Javier Alberdiri Berrizen zuen txabolatik ahuntz taldea lapurtu ziotela. Alberdi etsita dago eta ahuntzak agertzeko “esperantza handirik” ez duela adierazi du.

Alberdik ANBOTOrri aitortu dienez, ahuntz talde osoa ostu zioten: aker bi, 18 ahuntz eta 20 antxume. Horrez gain, zaldian ibiltzeko aulki bi ere lapurtu zizkieten. Abereen eta zaldian ibiltzeko aulkien balioa batuta, 6.000 euro inguruko lapurreta egin diotela jakitera eman du. Gainera, lapurtu dizkieten antxume batzuk asteon harategi batera eramane behar ei zituen.

“Abereek bizia ematen didate. Txabolara etorri eta orduak eta orduak eman ditzaket beraien zaintzen eta ingurua txukuntzen”, aitortu du Alberdik. Beraz, lapurreta horrek, balio ekonomikoaz gain, balio sentimental “handia” ere badu berarentzat.

Duela hamabost bat urtetik hona zituen ahuntzak Jose Javier Alberdik Berrizko lursail honetan.

Ahutz azpigorriak, Euskal Herriko bertako ahuntz arraza, ziren denak, guztiak “pedigrigidunak, denak mimoz eta ondo baino hobeto zaindutakoak”, adierazi du.

Alberdi BIAGE (Bizkaiko Azpi Gorri Elkartea) elkarteko kidea da eta elkarteko partetik elkartzun osoa jaso duela esan du. “Egin didaten lapurretaren berri izan zutenean, bakoitzak ahuntz bat oparitutako didala esan zidaten abeltzainen elkarteko kideek, nire ahuntz taldea eratu dezadan”, esan du.

### Duela hamabost bat urtetik hona zituen ahuntzak Alberdik Berrizko lursail honetan

Baina horrelako lapurretek ahuntzak berriro jartzeko “gogoa kentzen” diotela aitortu du. “Beldurra ematen dit, berriz ere ahuntzak jarri eta berriro ostuko ote dizkidaten. Hala ere, abereek ematen didate bizia”, adierazi du.

## “Bakoitzak ahuntz bat oparitutako didala esan zidaten abeltzainen elkarteko kideek”

Urtarrilaren 26ko gauean lapurreta egin zioten Jose Javier Alberdiri. Berrizen duen txabolatik aker bi, 18 ahuntz eta 20 antxume ostu zizkieten; baita zaldian ibiltzeko aulki bi ere

### Lapurreta, gauez

Lapurreta urtarrilaren 26an egin zioten, gauez. “Bariku gauetik zapatu goizera egin zidaten lapurreta. Barikuan bertan egon nintzen eta dena ondo utzi nuen. Zapatu goizean joan nintzenean, berriz, ahuntzik ez”, esan du Alberdik.

Orduan, Ertzain-etxera joan eta salaketa jarri zuen. “Bidean argi eta garbi ikusten zen norbait sartu zela, gurpil markak zeuden eta”, jarraitu du.

Bestalde, segurtasun neurri handiagoak hartzen dabilela jakitera eman du abeltzainak. “Lehen txakur bat neukan, eta orain beste bat ekarri dut. Gainera, kanpoko ateko sarraila ere aldatuko dut, itxura denez hemen dena da beharrezkoa eta”, bukatu du Alberdik.



Jose Javier Alberdik Berrizen ditu lursaila eta txabola.



# Belaunaldi berriei ateak zabalduta, Elorrioko Gaztetxearen 30. urteurrena ospatuko dute

Gazteak erakartzeko ekintzak antolatu dituzte; prozesuari otsailaren 17ko urteurren jaiagaz emango diote hasiera



Duela 20 bat urte ateratako argazkia.

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Gaztetxea sortu zela 30 urte bete dira dagoeneko, eta makina bat ekintza eta ekitaldi antolatu dituzte Elorrion urteurrena ospatzeko. Hala ere, gaztetxeo kideek etapa berri baten aurrean daudela adierazi diote ANBOTOrri, eta belaunaldi berriei ateak zabaltzeko asmoz, urteurren jaia bide baten hasiera dela aitortu dute.

**Belaunaldi berriek  
Gaztetxea beraien  
tokizat sentitzea dute  
helburu Elorrion**

“Belaunaldi berrien garaia da, beraien dira Gaztetxearen etorkizuna eta, horregaitik, elorriar

guztiek, gazteek zein ez hain gazteek, ateak zabalik dituztela jakitea gura dugu”, esan dute.

Duela urtebete ingurutik aldaketa prozesu baten barnean sartuta daude Elorrioko Gaztetxeo kideak. “Barne hausnarketa bat egin genuen, 30. urteurren hau ospatzeko ditugun arrazoiak mahai gainean jarritz”, aitortu dute Gaztetxeoek. “Gure asmoa ez zen ur-

teurren jaiari lehentasuna ematea, baizik eta beste belaunaldi batzuei ateak irekitzea”, jarraitu dute.

Horregaitik, 2018 honetarako, gazteei begirako ekintzak antolatzen dabilta Elorrioko Gaztetxeo kideak. “Egun gazteek ez dute Gaztetxea erreferente moduan ikusten, eta beraien toki bat dela erakutsi gura diegu”, esan dute.

Horretarako, ekitaldi sorta antolatzen dabilta Elorrioko Gaztetxeo kideak. Gaztetxea eraberritzeko prozesuari otsailaren 17an egingo duten urteurren jaiagaz emango diote hasiera.

Otsailaren 17rako, egun osoko egitaraua antolatu dute. Serigrafia, grafiti eta akroyoga tailerrekin emango diote hasiera egunari. Ostein, herri kirolak eta bazkaria egongo dira, besteak beste. “Herriar guztiei dei egiten diegu ekintzetara eta bazkarira etorri daitezten”, esan dute. Iluntzerako hainbat kontzertu antolatu dituzte.

Bestalde, Gaztetxearen 30 urte hauek gogoratzeko, otsailaren 15etik 28ra arte erakusketa antolatu dutela jakitera eman dute.

**Urteurren jaiko  
ekitaldietara herritar  
guztiak gonbidatu dituzte  
Gaztetxeo kideek**

Gainera, prozesu honek jarraipena izango du: ekainean egun musikatu antolatuko dute, uztailean gazte jaia, eta irailean zenbait ekintza antolatuko dituzte jaietan.

## Gure Esku Dagok 2019ra arteko erronka eta helburuen berri emango du Arriolan

Otsailaren 20an egingo duten ekitaldira batzeko deia egin diete herritarrei



Elorrioko Gure Esku Dagoko kideak.

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Erabakitzeo eskubidearen alde Gure Esku Dago dinamika giza kate bat egingo du ekainaren 10ean. Donostian hasi eta Gasteizko Legebiltzarraren aurrean amaituko da. Bidean Durangaldeko hainbat herri zeharkatuko ditu: Mallabia, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Iurreta, Durango eta Zornotza. Hala ere, erabakitzeo arrazoiak jasotzeko asmoz, dinamika “Zergatik erabaki?” mahai-inguru zikloa antolatu du aurretik.

Gure Esku Dagoren hurrengo erronka eta helburuen berri emateko, Elorrioko Gure Esku Dagoko kideek hitzordua jarri dute, otsailaren 20an, Arriola Antzokian. “Besteak beste, giza katea zergatik egingo den berriro, zergatik eramango den Gasteizera eta herritarren ituna zer den azalduko diegu herritarrei Arriolan”, esan du Ima Eguen Gure Esku Dagoko kideak.

Bestalde, dinamika kideek dei egin diete herritarrei ekainaren 10eko giza katea antolatzen parte hartu dezaten. “Gure herritik pasatuko ez den arren, bi kilometro inguru egokitu zaizkigu. Beraz, elorriarrok kanpora irten beharko dugu”, jarraitu du Eguenek.

Horrez gain, martxoaren 14an Angel Oiarbidek hitzaldia eskainiko duela jakitera eman dute.

## Udalak aurtin erosiko duen ibilgailu berria ehuneko ehun elektrikoa izango da

**OTXANDIO • J.D.**

Energia berriztagarrien aldeko hainbat proiektu gauzatu ditu udalak azken urteetan, eta aurtin ere bide horretatik jarraitzeko asmoa du. Esaterako, ehuneko ehun elektrikoa den ibilgailua erosi gura dute aurtin.

Gaur egun, ibilgailu bi dituzte herrian sortzen diren mantentze-lanei edo bestelako beharrezan aurre egiteko. Horietako batek arazoak ematen dituen arren, oraindik eutsiko diote, baina bere ordekoa elektrikoa izatea gura dute. “Ibilgailu elektriko batek herriko beharrezanetarako autonomia nahikoa eta sobera duela uste dugu”, adierazi du Urtzi Armendariz alkateak.

Energia berriztagarrien bidean eman gura duten beste pauso bat argindarraren ingurukoa da. Iturri berriztagarrietatik bakarrik jasotako argi-gaz argiztatu gura dituzte udal eraikinak eta kaleak. Hainbat proposamen dituzte mahai gainean eta denak aztertzen ari dira aproposena aukeratzeko.

## Gazteen sormena lantzeko tailerrak martxan daude Zaldibarren

**ZALDIBAR • A.M.**

Udalak gaztetxearen sormena lantzeko tailerrak antolatu ditu, Apika taldeagaz batera. Guztira, hiru saiok osatzen dute egitasmoa, eta harrera ona izan du. Saio horietako lehenbizikoa otsailaren 2an izan zen, eta antolatzaileen arabera arrakastatsua izan zen; tailerretan parte hartu ahal izateko, gazteek aurretik eman behar zuten izena, eta hainbatek bete zuten tramite hori. Datozen bi saioak otsailaren 16an eta martxoaren 2an izango dira, horiek ere Apika taldearen eskutik. Aurtengo negurako hainbat ekitaldi antolatu dituzte liburutegian, sormen tailerrez gainera. Martxoan, adibidez, mendiagaz lotura duten ekitaldiak izango dira protagonista.

Bestalde, eski irteera antolatu du Zaldibarko Gaztelekuak Valdezcarayra (Errioxa), otsailaren 17rako. Irteera Eskoriatzako, Arrasateko eta Aretxabaleako gaztelekuetara elkarlanean antolatu dute. Domeka izango da izena emateko azken eguna.



# 35 behargin kalean geratuko dira laster, Abadiñoako Hegaz enpresa zarratuko dutelako

Beharginek ez zuten espero enpresaren egoera hain txarra izatea; kaleratzeak zelakoak izango diren negoziatzen dabilta

ABADIÑO • A.M./M.O.

Etorkizun iluna du Abadiñoako Muntzaratz auzoko Hegaz enpresak, eta horri aurre egiteko prestatzen ari dira beharginak. Badira bi hilabete soldata kobratu barik daudela, baina, hala ere, ezustean heldu zaie enpresa zarratzeko albiste. Ez zuten espero egoera hain txarra izatea, CCOO sindikatuko Jaime Intxaustik esan duenez. “Bagenekien enpresak arazoak zituela; ez genekien, ordea, hain potoloak zirela”, esan du. Egoera eskas horretara ailegatzeko, lan edo proiektu falta izan ei da arrazoi nagusia. 35 behargin kalean geratuko dira laster, eta kaleratze horiek zelakoak izango diren negoziatzen dabilta egunotan, ahalik eta irteera onena lortu guran. “Indemnizazio legala hobetu gura dugu”, esan du CCOO-kideak. Zorretan dituzten soldata jasozea ere bada euren nahia.

Intxaustik adierazi du enpresak administratzaile bat hartu zuela egoera ekonomikoa aztertzeko; hau da, bideragarria zen ala ez ikusteko. Antza denez, ez du etorkizun



Joan zen zapatuan Zelaietako sarreran elkarretaratzea egin zuten, euren egoeraz informatzeko.

**Kaleratzeak martxorako aurreikusi dituzte, laneko erregulazio espediente baten bitartez**

ekonomiko onik ikusi, eta uneotan administratzaile hori bitartekari da enpresaren eta langile batzordearen artean. Izan ere, enpresaren barne egoera ere ez da osasuntsua; sindikatuko kidearen esanetan, gerenteak ospa egin zuen duela hile batzuk. Ez du uste Hegazen sortu

tako arazoaren erantzule bakarra denik, baina bai “arazoaren parte” dela.

**Kaleratzeak, martxoan**

Lehenengo kaleratzeak martxorako aurreikusi dituzte, laneko erregulazio espediente baten bitartez

garatuko liratekeenak. Intxaustiren berbetan, proiektu bi martxan daude lantokian, eta horiek amaitu arte beharrez ibiliko dira zenbait langile. Beraz, kaleratzeak epeka egingo direlakoan daude, nahiz eta oraindik bide osoa adostuta ez dagoen.

**Mobilizazioak hasita**

Beharginek mobilizazioei ekin zieten joan zen astean, Abadiñoako San Blas jaien bueltan egindako

**Otsaileko eguen eta bariku guztietan Durangoko Andra Marian elkartuko dira**

elkarretaratze batez. Euren esku-bideak defendatu gura dituzte, eta negoziazioetan indarra egitea ere bai. Datozen asteetan ere aldarrikapenak zabaltzen jarraituko dute; otsaileko eguen eta bariku guztietan Durangoko Andra Marian elkartuko dira, 19:00etan.

Bestalde, enpresa zarratzen denean, lurra alboko enpresa bati saltzea da jabeek esku artean duten aukera bat, Intxaustik kontatu duenez. Baina, oraindik ez dago akordioarik. 35 beharginek, euren aldetik, etorkizuna argitzeko esperantzaz borrokan jarraituko dute.

## Galtzeko arriskuan dagoen euskal artzain-txakurraren aldeko elkarte

Bertako txakur arrazaren aldeko elkartekoek informazioa eskaini zuten San Blas azokan



Elkartekoek txakur ugari ekarri zituzten San Blas azokara.

ABADIÑO • J.G./M.O.

San Blas azoka izan zen joan zen zapatuan Abadiñon, eta eguraldi petrala egin arren, jai-giro ederragaz gozatu ahal izan zuten ehunka lagunek nekazarien postuen bueltan. Horrez aparte, bestelako

**500 txakur inguru daude erregistratuta, eta horrek esan gura du arraza galtzeko arriskua dagoela**

makina bat postu ere egon ziren ikusgai, eta euskal artzain-txakur arraza mantentzeko sortutako elkartearena izan zen bat. Euskal Herri osotik etorritako bazkideak txakur eta guzti egon ziren informazioa eskaintzen eta finantzia-

zioa lortzeko kamisetak saltzen. Patxi Lizarbe etxarriarrak (Nafarroa) azaldu zuenez, uneotan arraza horretako 500 txakur inguru ei daude erregistratuta, eta horrek esan gura du arraza galtzeko arriskua dagoela. Gainera, gaur egun border collie arrazako txakurrak hartzen dituzte baserri lanetarako artzain askok. Baina elkarte honetakoak

**Gaur egun border collie arrazako txakurrak hartzen dituzte baserri lanetarako artzain askok**

euskal artzain-txakurraren maitale dira, eta arrazak bizirik irauteko lan egin gura dute.

**40 bat bazkide**

Elkartek 40 bazkide ditu, eta Jone Atxotegi abadiñarra da euretako bat. Durangaldeko beste kide batzuk ere badaude elkartearen, eta bertan egon ez arren, etxean arraza horretako txakurrak dituztenak ere badaude.

Elkarteko kideak baserririk baserri joaten dira arraza honetako txakurrak identifikatu guran. Beraz, ikerketa lan handia egiten dute. Gainera, azterketa genetikoko egiten ari dira eta EHUGaz kolaboratzen dute.

**EH Bilduk dei egin dio udal gobernari berdintasun kontseilua sortzeko**

ABADIÑO • A.M.

Udal gobernuak San Blasetan edukitako jarrera salatu du koalizio abertzaleak ohar baten bidez. EH Bilduren ustetan, udal gobernuak ez ditu jartzen behar besteko tresnak berdintasunaren alde. “San Blasetako egitarauan eraso matxisten aurkako aipamenik ez, kalean ere berdintasunaren aldeko ezer ere ez. Nora begira egon da udal gobernuak?” salatu dute.

Horrez gainera, herritarrek eginiko lana goraiatu dute oharrean. “Emakume talde batek lan itzela egin du eraso aurkako protokoloak tabernetan, txosnetan eta gaztetxean banatuz, kartelak eta pankartak herrian zehar eskegiz, musika ez sexista proposatuz... herritarrek gogoia dute berdintasunean oinarritutako Abadiño batean bizitzeko”. Gabezia hori betetzeko, EH Bilduk dei egin dio udal gobernari berdintasun kontseilu bat sortu eta martxan jartzeko. “Hori da herritarrek parte-hartze aktiboa eta zuzena izango duten gunea”, esan dute.





Goiuri Sopelana

## Harek denporak!

# GOITIBEHERAN, ZORO HAIZEA ALDE ZUTELA

Bihartik aurrera karnabalak edo inauteriak ospatuko dira han eta hemen. Mozorroak jantzi eta gure barreneko beste pertsonaia batzuei azalera irteten utziko diegu. Aste honetan berreskuratu dugun argazkian ere protagonistak mozorrotuta doaz, inauterietakoa ez den arren. 1982ko Iurretako sanmigeletako irudi bat da, sasoi hartan egiten zen goitibehera lehiaketakoa. Goiurrian behera etortzen ziren gaz-

te ausartak, batek daki zelan asmatutako ibilgailuekin. Zoro haizea alde zutela, birritan pentsatu barik irteten ziren bidera. Espontaneoak ziren, zalantzarik barik.

Joseba Agirre *Iketza* eta Mikel Aiartzagüena *Txapu* dira Goiuri Sopelanak ateratako argazkiko protagonistetako batzuk. 2018ko sanmigeletan animatuko al dira abentura hura errepi-  
katzen? **M.O.**

## Sei hankako mahaia

Dani  
Maeztu Perez  
EH BILDU



### Durangoko Udala, demolizio enpresa

Gustua hartu dio Durangoko udal gobernua eskabadoreen zaratari. Gustua hartu dio eraikita dagoena, erabili beharrean, eraisteari edo demolitzeari. Aurreko asteetan, ikusi izan dugu zelan bota den tren geltoki zaharreko eraikina. Zertarako? Beste garai batean diseinatu eta bulego itxi batean onartutako proiektu faraoiko bat egiteko. Ziurrenik, onartuta dagoen bezala sekula egingo ez dena, baina birpentsatu beharrean, dagoena zelan berrerabili daitekeen erabaki beharrean, eskabadorak sartu dituzte, eta gero gero-koak.

Baina orain Ezkurdin dau den makinak laster Montevideo kalera mugituko dituzte, eraikita eta gainera kasu honetan erabilia dagoen eraikin pribatu bat botatzeko. Gaztetxea hain zuzen ere. Horretarako, gaur bertan, Durangoko PNVk eta PSEk hitzarmen bat sinatu dute Jaurlaritzaren URA agentziarekin. Durangoko herriak 430.000€ inguru gastatuko ditu, pertsona pribatu batek (udalean oso ondo dakite nor den) eraiki zuen eraikin bat botatzeko. Bai, errekarren gainean dago, 1964. urte-tik hain zuzen ere, ilegalki eraiki zenetik, garai hartako udalaren oniritziarekin. Geroztik hor egon da, eta orain, inoiz baino bizi gehiago daukanean, eraiki zutenei erantzukizunik eskatu barik, durangar guztiok bere erai-pena ordainduko dugu. Argi daukat, ez nire diruarekin. Denbora gutxi daukagu, eta ikusi dugu tren geltokiarekin zer gertatu den. Hemen ere eskabadorak bertan egon arte itxarongo dugu!

## Durangaldea asteen

### San Roke eta Ziritza-Bustintza auzoetako herritarrekin batzartu da EH Bildu

**Durango I** Auzoan proiektatuta dauden aparkalekuaz eta pasealekuez, airearen kalitateaz eta inguruko lurren egoeraz berba egin zuten, besteak beste, eguaztenean San Rokeko ermitan. EH Bilduk deitutako batzarra izan zen, bertako bizilagunen iritzia jasotzea helburu zuena. EH Bilduk hainbat auzo-batzar egin izan ditu aurretik ere. Otsailaren amaieran Landako eta Txibitena inguruko auzokideekin batuko dira.

### Martxoaren 8a iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute Abadiñon

**Abadiño I** Martxoaren 8ko ekitaldiak iragartzeko kartela lehiaketa bidez aukeratu dute Abadiñon. Janire Moreno berdintasun arloko zinegotziak adierazi duenez, hiru sari banatuko dituzte. Kartel irabazlearen egileak 300 euro jasoko ditu; beste saririk jaso ez duen herriko egilerik onenak, berriz, 100 euro. Aurten, gazte atala ere sortu dute.

### Nekane Juradok berbaldea eskainiko du, Podemos-Ahal Duguk gonbidatuta

**Zornotza I** Nekane Jurado ekonomialaria Zornotzara etorriko da otsailaren 15ean, berbaldi bat eskaintzera. Podemos-Ahal Dugu alderdiak antolatu du ekimena, eta Zelaieta zentroko auditorioan garatuko da, 19:00etan. *Lucharon contra la hidra del patriarcado: Mujeres Libres* izeneko liburua aurkezteko aprobetxatuko du berbaldea Juradok. Iaz argitaratu zuen liburua, Eusko Lurra Fundazioaren eskutik.



### Arte Ederretako merituaren urrezko domina eman diote Leopoldo Zugazari

**Durangaldea I** Merituaren urrezko dominak banatu zituzten martitzenean Malagan (Andaluzia, Espainia), Arte Ederretan 2016an egindako lanarengatik. Sormen artistikoan, hezkuntza sustatzen zein artearen zabalkunde lan egiten duten pertsonak goratzen ditu Espainiako gobernua sari horregaz, eta Leopoldo Zugaza durangarra saritu zuten urrezko dominagaz. Letizia Erreginarenean eskutik jaso zuen oroigarria Zugazak.

Besteak beste, Gerediaga elkartearen, Durangoko Azokaren eta Zarauzko Photomuseumaren sortzailetako bat da Zugaza.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

katerin ardoak  
iñaki uribe  
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
Delicatessena - Ardotezia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
saltsan.com

R.P.S. 214/06

podologoa

Adinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIARIK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak


Betikoak flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA



# 7 aldeak



Sartu [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.



## Inauteriak

- 1 Zenbat lore daude?  
 2  3  4  5  6
- 2 Jende guztiaren artean, bi biki pare daude. Ze mozorro dute jantzita?
- 3 Aurkitu elementu hauek:
- 4 Aurkitu beste hauek ere: Elur pampina, hontza, bandera pirata, Kapelu mexikarra
- 5 Irudiko cowboy-aren eta honen artean 8 ezberdintasun daude. IKusten al dituzu?





[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

## Osatu


Marra baten bidez, lotu elur-panpin bakoitzari falta zaion elementua.



## Marraztu eta Margotu




Goxo-goxo dago lo gure katu Xapi. Zer amesten ari ote da?



## DOMINOA

Ezagutzen al duzu domino jolasa? Bai, ezta? Osatu ilada hau fitxetan falta diren irudiak marraztuz.



Kids&Us Durango - Uzungiro Plazaren Paraleloa, 8 - 48001 Durango  
T. 945 513 343 / 945 570 113 - durango@kidsandus.es - www.kidsandus.es





# Surrandien konpartsa

DANTZA IKUSKIZUNA  
DURANGO :: Otsailak 10

Zapatu karnabalez Surrandi goiztiarrak irtengo dira dantzan eta salto-ka. Hitzordua 18:00etan izango da, Kriskitinen entsegu lokalean. Puxikak eskuan, ikusleak alaitzen eta astintzen ibiliko dira surrandiak. Azken urteetan legez, hartz eta guzti irtengo dira.

## Otsailaren 9an

**BERRIZ jaia**  
Mozorro kalejira herriko kaleetan, 10:30ean, Arriolan.

**ZORNOTZA emanaldia**  
Pirritx, Porrotx eta Marimotots, 17:30ean, Amorebieta IV frontoian.

**ELORRIO antzerkia**  
'Esto no me lo esperaba' Zanguango teatroaren antzezlan, 20:30ean, Arriolan.

**BERRIZ jaia**  
Euskal disko festa, ostean, txokolate dastaketa, 18:30ean, frontoian.

**ZORNOTZA emanaldia**  
Perubele gaizkilearen aurkezpena, eta kalejira Udazken taldeagaz, 19:00etan, Amorebieta IV frontoian.

**ZORNOTZA emanaldia**  
Erromeria 'Gora Herria' taldeagaz, 20:00etan, Zelaieta parkeko karpan.

## Otsailaren 10ean

**ABADIÑO kalejira**  
Kalejira Zubietako joaldunekin, 12:30ean, Traña-Matienan.

**ZALDIBAR jaia**  
Herri bazkaria, eta ostean, disko festa, 14:00etan, gaztetxean.

**IURRETA jaia**  
Bazkaria, eta ostean erromeria "Fan&Go" taldeagaz, 14:30ean, Askondon.

**BERRIZ jaia**  
Bazkaria (aurretik poteoa egongo da), 15:00etan, gaztetxean.

**ZORNOTZA emanaldia**  
Asier Kidam magoagaz magia ikuskizuna, 18:30ean, Zelaieta parkeko karpan.

**ABADIÑO musika**  
Erromeria Basajaun orkestragaz, 19:00etan, Traña-Matienako eskoletako aterpean.

**ABADIÑO jaia**  
Kalejira Bizkarra txarangagaz, 19:00etan, Zelaietan.

**ZALDIBAR jaia**  
Mozorro kalejira Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek taldeagaz, 19:00etan, udaletxetik.



Paule San Salvador del Valle Aranaren '22' liburuaren aurkezpena. Javier San Salvador del Valle, Eva Rodriguez eta Jon Sanchez izango dira hizlariak. 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

## '22'

AURKEZPENA ETA  
SOLASALDIA  
DURANGO :: Otsailak 9

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

**BERRIZ jaia**  
Kuadrillen topaketa, lehiaketa eta DJak, 19:00etan, Olakueta plazan. Mozorro lehiaketaren sari banaketa 00:00etan egingo da.

**ZORNOTZA emanaldia**  
Xaibor, 20:30ean, Zelaieta parkeko karpan.

**MALLABIA musika**  
Mozorro erromeria Gauargi taldeagaz, 20:00etan, plazan.

**BERRIZ jaia**  
Afari herrikoia, eta ostean, erromeria DJ Robertegaz, 21:00etan, frontoian.

**BERRIZ jaia**  
Dj Ainhoa, 23:00etan, gaztetxean.

## Otsailaren 11n

**ABADIÑO ibilaldia**  
'Iturrien martxa' 13 kilometroko ibilaldia Alluitz mendi taldeak antolatuta, 09:30ean, Txanportatik.

**ABADIÑO ibilaldia**  
Geocaching, 11:00-14:00, Mendiolako frontoian.

**ZORNOTZA emanaldia**  
Inauteri dantzak Udabarri dantza taldeagaz, 12:00etan.

**ABADIÑO hitzaldia**  
'Latinoamerika bizikletan' hitzaldia Ane eta Ikerren (MBT Rock&Roll) eskutik, 18:30ean, gaztetxean.

**DURANGO jaia**  
'Twister show: el hombre de las mil caras' ikuskizuna, 18:30-20:30 bitartean, Landako kiroldegian.

## Otsailaren 13an

**ELORRIO jaia**  
Eskola guztietako LHko umeen dantzak eta desfileak, Larima disko festak dinamizatua, 10:15ean, plazan.

**MALLABIA emanaldia**  
'Tomasen abenturak' pailazoaren ikuskizuna, 14:30ean, eskolan.

**DURANGO jaia**  
Haur parkea, 16:00-20:00 bitartean, Landako Gunean.

**DURANGO jaia**  
Gazte diskoteka Oihan Vegagaz, 16:30-19:30 bitartean, Andra Mariko elizpean.



# Elkarretaratzea egingo dute Tarajaleko sarraskia gogoratzeko

**DEIALDIA** | 2014ko otsailaren 6an Ceutako (Espainia) Tarajal hondartzan 15 lagun hiltzak agertu ziren. Orain dela lau urteko goiz hartan 200 etorkin igerian heldzen saiatu ziren Tarajalko hondartzara; Guardia zibilak gomazko pi-

lotekin eta ke-potoekin egin zien harrera. Iturri ez ofizialen arabera, 80 lagun hil ziren goiz hartan. Hori salatzen, elkarretaratzea deitu du Ongi Etorri Errefuxiatuak elkar-teak. Zapatuan, 12:30ean, Andra Marian.



## Otsaileko agenda

<b>9</b>	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> Bularretik mintzora irakurketa kluba <b>17:00</b> 3-5 urte <b>18:00</b> 6-7 urte
<b>10</b>	<b>"AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA" "ZAPATU KARNABAL"</b> <b>14:30</b> Bazkaria (Askondo) <b>16:30</b> Erromeria "FAN & GO"
<b>12</b>	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> Paperezko hegoak: haurrentzako irakurketa kluba <b>15:45-16:45</b> D.B.H 1 <b>17:00-18:00</b> LH 5. maila eta 6. maila
<b>13</b>	<b>"AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA"</b> Martitzen karnabala <b>17:00</b> Musika ikuskizuna (Askondo) Goiuriko ama nagusien elkar-tea <b>18:00</b> Mozorro lehiaketa
<b>14</b>	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> <b>10:00-11:00</b> Helduentzako XL Kluba
<b>15</b>	<b>"GOIURIKO AMA NAGUSIEN ELKARTEA"</b> <b>17:00</b> Memoriaren estimulazio tailerra (Nagusien etxean)



## Musika ardatz duen mozorro festa, Ateneon

**MOZORRO FESTA** | AteneON ekimenaren baitan, kontzertu sorta antolatu dute hamaika musikazalek. Horrez gainera, inauteriak modu berezi batean ospatzeko asmoz, musika ardatz izango duen mozorro festa antolatu dute zapatarako egitasmo kideek.

30 bat lagun bildu dira ospakizun hau egin ahal izateko. Guztien artean (batzuek errepikatu egingo dute), hainbat euskal talderen eta nazioarteko talde batzuen bertsoiak joko dituzte. Besteak beste, Brujeria, Delorean, Kuraia eta Gozategiren bertsoiak entzungo dira Ateneon. Talde bakoitzak 15-20 minutu inguru joko ditu. AteneON ekimenaren helburua "agenda musikal eta kriterioduna" eskaintzea da, eta proposamen interesgarri horiek, bertsonatuko diren

taldeen aniztasunean ere igarri daitezke. Izan ere, askotariko doinuak entzun ahalko dira bihar Ateneon.

Gainontzeko ekitaldietan bezala, sarrera 5 euroan erosi ahalko da, eta sarreragaz, kontsumizio bat oparitu dute. Kontzertuak 20:00etan hasiko dira, eta garaiz joateko gomen-dioa egin dute antolatzaileek, edukiera mugatua delako.

### Otsailaren 10ean

**Pantxoa ta Peio, Brujeria, Anestesia, Delorean, Ramones, Ruper Ordorika, Piperrak, Kuraia, Negu Gorriak, RIP eta Gozategi taldeen bertsoiak.** 20:00etan, Ateneon.

**MALLABIA jaia**  
**Txokolatada, euskal dantzak eta DJ Txurru,**  
16:30ean, frontoian.

**ABADIÑO jaia**  
**Txokolatada, eta ostean, DJ Mariogaz jaia,**  
16:30ean, Traña-Matienako frontoian.

**ATXONDO jaia**  
**Magia eta jolasak ikuskizuna; ostean, txokolatada,**  
17:00etan, frontoian.

**MALLABIA lehiaketa**  
**Playback eta mozorro lehiaketa,**  
18:30ean, frontoian.

**ZORNOTZA emanaldia**  
**Photocalla,**  
17:00etan, Zelaieta parkean.

**ZORNOTZA emanaldia**  
**'Kolpez blai' Zo Zongó batukada,**  
17:30ean, Zelaieta parkean.

**ZORNOTZA jaia**  
**Nagusientzako mozorro lehiaketa, luntxa eta dantzaldia,**  
18:00etan, Nafarroa zentroan.

**ELORRIO jaia**  
**Luhartzen erromeria,**  
18:30etan, plazan.

**ZORNOTZA emanaldia**  
**Inauteriei agur kalejira Perubelegaz,**  
19:00ean, Zelaieta parkean.

### Otsailaren 15ean

**ABADIÑO ikastaroa**  
**'Nolakoa da gure parte-hartze sozial eta politikoa?'**  
19:30ean, Txanporta kultur etxean.

### Otsailaren 2tik 25era

**BERRIZ erakusketa**  
**Xabier Alconero Martinen 'Madrid grabatuak' erakusketa,**  
asteburuetan ere zabalik, Kultur Etxean.



Jose Enrique Urrutia Kapeauren "Islak" erakusketa ikusgai dago gaurtik aurrera Zornotzako Zelaieta Zentroan.

### Otsailaren 7tik maiatzaren 30era

**BERRIZ ikastaroa**  
**Emakumeen jabekuntza eskolaren baitan, Mindfulness ikastaroa,**  
12 urtetik gorako emakume berriztarrentzat, eguaztenetan 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

### Otsailaren 16tik 18ra

**DURANGALDEA irteera**  
**Zaldai eta Asuntze mendi taldeek eski irteera antolatu dute,**  
(izena emateko azken eguna, otsailaren 12a), informazio gehiago [www.zaldaimenditaldea.org](http://www.zaldaimenditaldea.org) helbidean.

### Otsailaren 9tik martxoaren 9ra

**ABADIÑO ikastaroa**  
**Autodefentsa feminista,**  
barikuetan, 17:00-20:00 bitartean, Txanporta kultur etxean.

## Zine- ma

**:: Berriz**  
KULTUR ETXEA

**Thi Mai**  
barikua 16: 22:00  
domeka 18: 19:00

**:: Durango**  
ZUGAZA

• **Cincuenta sombras liberadas**  
barikua 9: 19:30/22:00  
zapatua 10: 17:00/19:30/22:30  
domeka 11: 16:30/19:00/21:30  
astelehena 12: 18:30/21:00  
martitzena 13: 20:00  
eguztzena 14: 20:00

• **El hilo invisible**  
barikua 9 19:30  
zapatua 10: 19:30  
domeka 11: 18:30  
martitzena 12: 18:30/21:00  
eguztzena 13: 20:00

• **Amityville. El despertar**  
barikua 9: 19:30/22:00  
zapatua 10: 22:30  
domeka 11: 21:00  
astelehena 12: 18:30/21:00  
martitzena 13: 20:00

• **Cavernícola (euskaraz)**  
zapatua 10: 17:00  
domeka 11: 26:30

**:: Elorrio**  
ARRIOLA

• **120 pulsaciones por minuto**  
domeka 11: 20:00  
astelehena 12: 20:00

• **Sola en casa**  
domeka 11: 17:00

**:: Zornotza**  
ARETOA

• **El corredor del laberinto. La cura mortal**  
barikua 9: 20:15  
zapatua 10: 19:30/22:00  
domeka 11: 20:00  
astelehena 12: 20:15





Sagardoy, Goya saria esku artean duela.

## Aktore berri onenaren saria irabazi du Eneko Sagardoy aktore durangarrak 'Handia' pelikulan eginiko lanagatik

'Handia'-k hamar Goya sari jaso zituen, Eneko Sagardoyrena barne; aktoreak bi film ditu estreinatzeneko

ZINEA • J.G./A.M.

Aktore berri onenaren Goya saria esku artean duela itzuli da Eneko Sagardoy aktorea Durangora. Euskarazko lan bategatik Goya saria jaso duen lehen aktorea da durangarra, gainera. Zapore gazi-goza utzi dio sariketarak, baina. Izan ere, biharamunean Jose Martin Urrutia *Txotxe* hil zen. Galan bertan egin zuen bezala, osteko elkarrizketetan gogora ekarri du Sagardoyk. "*Txotxe* egin dudana gauza bakoitzean eta esango dudana hitz bakoitzean

entzungo dut", adierazi du. Pozik agertu zen, ostera, filmeak jasotako aitortzagaz. "Pelikula saritu dute", esan du. Izan ere, *Handiak* 10 Goya sari jaso zituen, Sagardoyrena barne. "Itzela da talde osoarentzat. Goya sarietan, sari gehien jaso dituzten pelikulen sailkapenean *Handia* hirugarrena da".

### Egoera "pribilegiatua"

Martitzenean Bilbon egon zen Sagardoy, *Cuando dejes de quererme* filma prentsa aurrean aurkezten. Igor Legarreta zuzen-

dari bilbotarraren pelikula berriaren parte hartu du aktoreak. Hain zuzen ere, 2016 eta 2017an lau pelikulatan parte hartu du Eneko Sagardoyk, eta orain estreinatzen ari dira. Gainera, beste lau antzezlanetan ere egin du lan tarte horretan. Aurkezpenean, "pribilegiatua" sentitzen dela adierazi zuen, halaber. Izan ere, zeresana eman dute Sagardoyk prentsaurrekoan eginiko adierazpen batzuek. Sektoran bizi duten egoeraren berri eman gura izan zuen, abenduaz gerotik langabezia kobratzen ari dela esanez. "Aktore baten bizitzari buruz dauden este-reotipoak puskatu gura ditut", adierazi du.

"Orain bi antzezlanegaz ari naiz bira egiten, eta bi filmerekin estreinaldia daukat egiteko". Durangora maiatzean iritsiko da Heriotza Bikoitza (Doble Malta) antzezlan; Miren Gaztañagaz batera egin ditu antzezle lanak sorkuntza kolektibo honetan.

## Ander Sagardoy: "Abisatu nuen bezala, Athleticen golen moduan ospatu dut; berdin didate kamerek"

KRONIKA • ANDER SAGARDOY

Behar kontuengatik, eguenean (otsailak 1) iritsi naiz Madrilera. Bertan eduki dut zain Eneko, eta azken hileko gorabeherak kontatu dizkit. Lehenbiziko urduritasunak agertu dira.

Barikuan, anaiaren lagun batzuek afaldu, eta pixka bat konspiratu dugu. Zapatuan, beste askotan bezala, batera itzartu gara. Ondo armozatzen asmoa, baina Eneko bertan utzi du berearen erdia; urduri

dago. Momentu handia heltzen ari dela konturatu gara. Motxila prestatzen entzun dut lehenbiziko gero, telebistan entzungo zen berbaldea. Eneko siesta egin gura du, baina ez dakit lortu duen. 19:00ak dira, eta pajarita jantzi ezinik nago ni. Anaia etorri behar izan da laguntzera. "Lasaiago geratuko naiz zuri pajarita ondo jarrita", esan du. Nik baino hobeto daramatza nerbioak.

Hasi da ikuskizuna. Kamera

mordoa zuzenean emititzen. "Ni ez naiz Eneko Sagardoy, hango hura da" diot. Beste kamera bat, eta berdina. Taxia hartu, eta hotelaren beste aldera joan gara. Han dago *Handia*-ko ekipoa. Argazkiak egin, eta areto barrura. "Beharbada, ez da hainbesterako, ez?". Inozoak gu. 7. ilaran gaude, eta ez dugu ikusten atzean dugun guztia. 20 metrora Javier Bardem eta Penelope Cruz. Eneko pasillo alboan jesarri da. Ni, ondoan. Lokalizatu ditugu ama eta Joseba Usabiaga, hegal batean. Telebista ikusten ari naizen sentsazioa dut. Agertu dira Paco Leon eta Marta Etura. "Badator momentua" diosta. Ebatu dut, askatu dut, albokoa ebatu

dut. "Eneko Sagardoy!". Abisatu nuen bezala, Athleticen golen moduan ospatu dut; berdin didate kamerek. Diskurtso hasieran familiakook aipatu gaitu. "A mis padres...". Hor hunkitzen nau, guztia merezi dute-eta. "A mi hermano...". Horrek sorpresaz harrapatu nau, betirako gordeko dudana harrotasuna. Oraindik ez dut sinesten ikusten nabilena.

Hurrengo goizean errealitate-ra jaitsi ginen. Eneko *Txotxe* hil dela esan behar diot. Inoiz ez dut ikusi horrela negar egiten. Inoiz ez. Kolpe gogorra izan da, bi munduren arteko talka. Oraindik sinetsi ezinik, atzera buelta Durangora. Bidean elkarrizketa gehiago, eta elurra. Iritsi



Sagardoy anaiak, Goya sarietan.

gara etxera azkenean. "Hor oso bistara dago, ez dut denbora guztian presente eduki gura", dio Eneko. Eta egongelan erdi ezkutu dagoen apal batean geratu da *buruhandia*.

## "Itsasoagaz dudana harremana, lotura, islatzen dute marrazkiek; isatsoarekiko maitasuna"

Itsasoa Alaitz Muroren zati bat bihurtu da, eta hori islatzen duten 13 marrazki bildu ditu Durangoko Arteka liburu-dendan; lehen erakusketa du 'SEAFUN' izenagaz zabalduakoa

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Urte asko daramatza Alaitz Muro Larizgoitiak (Durango, 1978) itsasoan bizi eta lan egiten, eta itsasoagaz sortutako lotura hori islatzen dute Durangoko Arteka liburu-dendan bildu dituen 13 marrazkiek. *SEAFUN*, *itsasoarekin dibertitzen*, izenburua jarri dio erakusketari, marrazki guztietan ikusi daitekeen *sea fun* koralagaz hitz jokoa eginez. Otsailean eta martxoan egongo da erakusketa zabalik.

Itsasoarekiko errespetua, mai-

tasuna, islatu gura izan du Murok. "Itsasoa nire zati bihurtu da. Urpekaritzan lan egin dut urte askoan, ordu asko eman ditut itsas azpian eta horren isla dira lanak. Itsasoan bizi eta lan egin dut eta itsasoagaz dudana harreman hori, lotura hori, islatzen dute marrazkiek; itsasoarekiko maitasuna".

Grabatuak dira oinarrian —Bilboko La Taller-en egindakoak—, artistak azaldu duenez. "Askotariko grabatu motak dira eta horren gainean jolastu gura izan dut, ho-

rretarako hainbat teknika mota erabiliz". Urteak daramatza marrazten; baina, lehenengoz erakutsiko ditu bere lanak. "Barruan dudana askatzeko marrazten dut, eta erakusketa ikustera doanik gozatzea espero dut". Artekak emandako aukeragatik oso pozik eta eskertuta dago Muro. "Erakusketaren prozesu guztian parte hartzeko aukera izan dut: erakusketa muntatzeko aukera izan dut eta bertaratzeko aukera ere izango dut". Lehen erakusketa du, baina espero du azkena ez izatea.



Arteka liburu-denda Alaitz Muroren 13 marrazki daude erakusgai.





IURRETA

**Tellitu-n  
hurrengo  
eraikuntza**

3 logelatako  
6 etxebizitza

2 logelatako  
11 etxebizitza

Garajea eta  
trastelekua barne

**Etorri  
ikustera!**

DURANGO  
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

**Etorri ikustera geratzen diren  
2 etxebizitzak!**

*Durango herrigunean  
Energia eraginkortasun  
handiko etxebizitzak*

*Hiriko txaletak*

*Oiz mendira begiratokiak*

*Leku zabalak*



**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)



# Figuranteak protagonista bilakatzeko aukerari buruzko antzezlan, Arriolan

“Esto no me lo esperaba” antzezlan ikusteko aukera egongo da gaur, hilak 9, 20:30ean, Arriolan; 1993an sortu zenetik, kolektiboki idazten ditu obrak Zanguango konpainiak



Protagonistak desagertu arren, figuranteek biragaz aurrera jarraitzea erabakitzen dute antzezlanean.

## ANTZERKIA • M.O./A.M.

Antzezlan honegaz, aktore figuranteen paperaz hausnartu gura dute egileek. Mexikoko Iraultzaren liderra zen Emiliano Zapataren bizitzari eta heriotzari buruzko

antzerki ekoizpen erraldoi bateko protagonistak aspaldi desagertu dira eta, horregatik, figuranteek bira egiten jarraitzea erabaki dute, megal-fikzio hau irudikatzen eta sinisgarri egiteko moduak bilatzen.

Euren asmoa ez da protagonistak ordezkatzea, figuranteen paper sinpleekin istorio osoa taularatzeko gai direla uste dute eta. Helburu horrek, baina, gatazkak sortuko ditu protagonisten artean. “Orain

ez dut ongi oroitzen zehazki nork esan zuen ‘Gure bizia garatzen den tokien eta gure bizitzari buruz erabakitzen den tokien arteko distantzia fisikoa gero eta handiago da’, baina guk ere horretan sinesten dugu, eta gure bizitzan eragiten duten erabakietan gero eta figu-

## Mende laurdena daramate Zanguango taldeko kideek obrak kolektiboki sortzen

“Gure bizitzan eragiten duten erabakietan gero eta figuranteagoak garela uste dugu”

ranteagoak gara” diote Zanguango antzerki taldekoek.

1993an sortutako antzerki taldea da Zanguango, eta makina bat obra taularatu dituzte. Mende laurden honetan tinko eutsi diote kolektiboki sortzeko metodoari. Hala ere, forma eta helburuak aldatu egin dituzte urte hauetan zehar. “Arte eszenikoak eta publikoak aldatu egin dira hogeita bost urte hauetan. Beraz, logikoa da gure obrak aurkezteko modua aldatzea, sorkuntza bide beretik egin arren”, diote.

## Geure Durangaldea

Josune Aranguren  
Zatika  
Kultura teknikaria



## Txotxek ereindakoa

Egunotakoek erakusten dute Txotxek herrian utzi dituen hutsunea eta arrastoa. Ikasle ohien omenaldiak gehienak, ez da kasualitatea antzerki irakasle batek eragitea hori guztia. Bateratzeko indar berezia duten bi elkartzaren ziren: antzerkia eta Txotxe. Antzerkigintza indarrak, disziplinak, teknikak, harremanak integratzeko bidetzat jotzen dugunok, Kurutziazak Txotxeren proiektua kurrikulumean integratuta izatea goraipatzen dugu, aktibitatea aurrera ateratzeko lokarria bizitzara hedatzen irakasten baitzuen. Eneko Sagardoy ikasle Goyadunak Berria egunkariko elkarrizketan aitortzen zion horixe beraxe: “Antzerkiak daukan botererik handiena erakutsi zidan... Ispilu lan handia egin zuen nirekin eta beste gazte guztiekin” eta ohol-tzako lanaz zioena: “jendeari ematen diogun deskantsu bat, baina ez deskantsu pasibo bat; deskantsu hori, gero, are aktiboago bilakaturik aterako da aretotik. (...) Eta ahalik eta gauza gehien aurkitu nahi ditut nik bizitzan, neure baitan eta kanpoan, eta horretarako aukera ematen dit antzerkiak. Hunkigarria da hori.” Antzinako greziarrek zergatik sortu eta maitatzen zuten tragedia? Pertsonaia norbera garelako. Maisua zen Txotxe, *stricto sensu*. Goya sarietako gauean bere aitortpena lortu zuen. Patuaren ironiak. Ikasle bakoitzaren gaitasun edo abilezia antzezlanerako ataza bihurtzen zituen, inor baztertu barik. Maisutzat daukagun Jakoba Errekondok oraintsu Durangon azaldu duen bidetik, esan dezagun kultura *cultivare*tik datorrela eta zain dezagun guztion artean Txotxek ereindakoa.

## ANTZERKIA • A.M.

Atara Zarata antzerki talde gaztea da, egindako lanari esker urteekin hazi egin dena. Hasiera batean, bost gaztek sortu zuten, eta orain 60 laguneko lan taldea bihurtu da. Egun, beste jauzi bat gura du. Artista poltsa bat sortu gura du. Hain zuzen, artista berrien eta antzezlanetarako artista bila dabiltzan konpainien artean harremana ahalbidetzea da lan poltsa berri hau sortzearen arrazoia. “Gu ezin gara geldi egon, eta artista eta produkzio arloen artean zubi lana egiteko asmoa dugu”, azaldu du Markel Ganboa koordinatzaileak. “Baditugu baliabideak, eta bide bat zabaltzeko prest gaude”, esan du.

Taldean egindako hausnarketa baten ondorioz jarri dute lan poltsa eratzeko ekimena martxan. “Za-

# Atara Zarata antzerki taldeak familia handitu gura du artista poltsagaz

Orain artean, 60 bat lagunek hartu dute parte antzerki taldeak egin dituen lau obretan

lantzak izan ditugu buruan: nork ematen dizkie aukerak talentu berriari? Nork zabaltzen ditu ateak?...”. Galdera horiei erantzuna emateko eta antzerkian egon daitezkeen gabeziak betetzeko asmoa ere badu egitasmoak. Guztientzako tokia dagoela azpimarratu du, gainera, Ganboak. “Kultur arloan lan egin gura duen edozein pertsona eman dezake izena; poltsa zenbat eta anitzagoa izan, orduan eta fruitu hobeak emango ditu”, arrazoitu du kudeatzaileak.



Atara Zarata taldeko kideak, obra batean.

**Txirri, Mirri eta Txiribiton**  
2 urtetik aurrera  
Otsailaren 18a,  
18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA  
SABANGORUEN  
Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

**PLATERUENA**

PLATERUENA  
Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jatelexea@plateruena.net

Otsailak 9 - 19:00etan  
**MENDIAK HURBILDUZ**  
Bitzaldia

Otsailak 16 - 19:00etan  
**MENDIAK HURBILDUZ**  
Bitzaldia

Otsailak 17 - 11:00etan  
**JOLASAREN TXOKOA**  
Haur literatura



## “Helburuak lortzeko, norbere buruarengan sinestea eta gogor lan egitea da garrantzitsuena”

Patxi Usobiaga eskalatzaileak ‘Sin Límites’ dokumentala aurkeztuko du, gaur, Mendiak Hurbilduz ekimenean

**ESKALADA** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

**Goi-mendiari eskainitako hitzaldi sorta osatu dute Plateruena Kafe Antzokian; gaur, 19:00etan, Alvaro Ortiz ‘Tasio’-k eta Patxi Usobiagak hitzaldi bana eskainiko dute. Azaroan 9a+/b graduko bidea egin zuen Usobiaga eibartarrak, eta zailtasun hori egiten duen lehen euskal eskalatzailea da. ‘Sin Límites’ dokumentala izango du berbagai Durangon.**

**Zure bizitzaren inguruan egindako ‘Sin Límites’ proiektioaren harira etorriko zara Durangora. Zer erakusten du dokumentalak?**

Eskalatzaile profesionala nintzeanean bizimodu bat neukan. Baina, egun batetik bestera, istripu bat izan nuen eta goi mailako kirola utzi behar izan nuen. Hala ere, gero, berriz ere poliki-poliki eta gogor lan eginda, eskaladara itzultzea lortu nuen, bai entrenatzaile moduan eta baita kirolari moduan ere. ‘Sin Límites’-ek bizitza prozesu horretan bizitako faseak kontatzen ditu, eta kirolari profesional batek berriro ere indarra nola hartzen duen azaltzen du, batez ere.

**Nolakoa izan da dokumentala grabatzeko momentua?**

Une oso gogorra izan zen, nire bizi-


tzako bideorik gogorrena grabatzea tokatu zitzaidan eta. Azken batean, istripu baten ondorioz, nire bizitza, nire egunerokoa goitik behera aldatu zen. Hala ere, lan eginda ikusten da nola hartzen duen indarra kirolari batek, egoerari buelta eman eta bizitzan zorientsu izateko.

**Dokumental hau zailtasunen batetik irtetzen dabilen edozeinentzat izan daiteke aproposa?**

Bai, baina ez horientzat bakarrik. Proiektio honek erakusten du egunen batean zeozer amesten baduzu eta zure buruarengan sinesten baduzu, gogor lan eginda lortuko duzula. Gainera, niretzat oso polita da helburu bat lortzeko lanean zabiltzanean, prozesu hori guztia bizitzea. Bide horretan gorabeherak egongo dira, jakina, baina, helburuak lortzeko, norbere buruarengan sinestea eta gogor lan egitea da garrantzitsuena.

**2010ean istripu bat izan ostean, 2011n eskalatzeari utzi zenion. Hala ere, 2014an berriz itzultzea lortu zenuen. Uste zenuen bueltatuko zinela?**

Egia esan, eskalada utzi eta hurrengo bi urteetan, uste nuen ez nuela inoiz gehiago eskalatuko. Lepoan min handia nuen, ezin nuen gus-



**Patxi Usobiaga**  
**Lakuntza**  
Eskalatzailea  
Eibar | 1980

Plateruenean egongo da, gaur, Patxi Usobiaga eskalatzailea. JAVIER

tuko nuen kirola egin. Baina, sufritzen jarraitu ordez, beste motibazio bat bilatzen ahalegindu nintzen. Orduan, surfatzen hasi eta bizitza erlaxatuago bati ekin nion.

**Baina, duela lau urte berriz eskalatzaren hasi eta gaur egun goi mailan zbiltza.**

Kirolari profesionalen bizitza oso gogorra da, oso diziplinatuak izan behar baitugu. Hala ere, erretiratzera erabaki nuenean, lasaiago bizi nintzen eta gustura nengoen, bai-

na gero konturatu nintzen norbera den modukoa dela, eta nik gorpuzari egurra ematea nuela gustuko. Orduan, zenbait proiektugaz hasi nintzen. Lehenengo, eskalatzaileak entrenatzeari ekin nion eta, ostean, neu hasi nintzen berritoki eskalatzaren. Hala ere, aitortu behar dut maila gorenean nabilen arren, ez daukadala lehengo sasoi.

**Etorkizun hurbil batean, ze helburu dituzu?**

9b graduko bide bat egitea da nire

helburua. Baina azaroaren 10ean egin nuen “Pachamama” 9a+/b graduko bidetik oraindik errekupearatu gabe nago. Nire asmoa ahalik eta arinen proiektu berri bati heltzea da, eta berriz ere entrenatzen hastea. Hainbat aldiz saiatu naiz berriro ere entrenatzen, baina ikusten dut nire gorputza ez dagoela prest beste proiektu edo erronka bati ekiteko. Hala ere, pare bat hilabete barru hurrengo helbururako prest egotea espero dut.

### Asteko kirolaria



**IGOR**  
**NUÑEZ VILLANUEVA**

**Laudio, 1975. Kulturalako futbol entrenatzailea**

**Ehun partidura heldu da eta etorkizunean beste hainbestera heltzea desio du. Berak eta bere lan taldeak Hirugarren Mailako lider daukate Durangoko Kulturala, eta**

## “Lorpen handiren bategaz amesten jarraitu behar dugu, zaleek ere amestu dezaten”

Igor Nuñezek ehun partidu egin ditu Durangoko Kulturalako entrenatzaile

**aurten denagatik borroka egiteko asmoa dute.**

**Ehun partidu. Hain ogibide ezegonkorrean, bada zer bait.**

Ilusio handia egiten didan kopurua da. Beti esan dut emozionalki klubari oso lotuta sentitzen naizela. Aurreneko ehun partiduak izatea espero dut eta, gutxienez, beste hainbeste etorri daitezela.

**Beheraldi txiki batean zaudete azken partidu biak galduta. Beasai-**

**nen kontrakoan epailearen erabaki eztabaidagarri bategaz, gainera.**

Jokaldi eztabaidagarri bat baino gehiago izan zen partiduan: penalti bat aurka, gure golean adierazitako jokoz kanpoko... Hortik haratago, jokoa eta aukerak jarri zituen talde bakarra geu izan ginen, baina zortetik barik. Taldearen portaera bikaina izan zen eta hori da garrantzitsua.

**Azken partidu bietan golik sartu ez izanak arduratzen zaitu?**

Sarritan, bolada kontua da. Bartzuetan, atera jaurtitako dena barrura doa eta, beste batzuetan, ez da sartuko egun osoa saiatuta ere. Beste egoera batean kezkagarria litzateke, baina gaur egungo gure egoeran, ez. Gaur ligako talderik onena garela diote zenbakiek.

**Asteburuan, beste oilar batek, Portugaletetik, bisitatuko du Tabira.**

Hirugarren Mailako laugarren multzoak duen bereizgarri nagu-

sienetakoa da ez dagoela partidu errazik. Hainbeste kalitate ez dutenek lanerako konpromisoagaz eta diziplina taktikoagaz ordezkatzen dituzte euren gabeziak. Portugaleteren kasua horixe dela uste dut. Guk gure jokoa egiten saiatu behar dugu.

**Zaleek txarto egingo lukete lorpen handiren bategaz amets egiten?**

Ez horixe. 24 partiduren ostean, goian egoteko potentzialik ez dugula esatea zaleak engainatzea litzateke. Orain arte kapaz garelako erakutsi badugu, horretarako hainbat errekurtsio ditugulako da. Lorpen handiren bategaz amesten jarraitu behar dugu, zaleek ere amesten jarraitu dezaten.



# “Aurreko autoa neuk bakarrik nuen estatu osoan, eta oraingoaz berdina gertatzen da”

Lebeiti auto-gidaria errepideetan gerra ematen jarraitzeko prest dago Renault Megane Trophy auto berriagaz

**AUTO LASTERKETAK** • JOSEBA DERTEANO

Erretiratu egingo zutela uste zuten oker zebiltzan. Bera barne, Renault 5 mitikoa istripu batean txikitu zuenean, bere ibilbidearen azkena heldu zela pentsatu zuen Jose Ignacio Erdoiza ‘Lebeiti’-k (Iurreta, 1956). Adinagatik eta ez zuelako autorik. Baina, bai zera! Errepidearen magiak sorginduta jarraitzen du eta inoiz baino indartsuago bueltatzeko prest dago. Renault Megane Trophy bat eskuratu du oraintsu, estatuan dagoen mota horretako bakarra, modernoa eta indartsua, eta gerra ematen jarraitzeko asmotan da.

Istripua Jaizkibelerako igoran gertatu zen, iazko irailean. Zuhaitz bat jo zuen. Bera onik irten zen, baina autoa, ez. “Dena bukatu zela pentsatu nuen”, gogoratu du. Orduan ez zekien, bukaera barik, aro berri baten abiapuntua zela. Lehenengo, istripuaren berri jakitean, valentziar batek deitu zion autoa erosteko intentzioz. “Diru on bat lortu nuen”, onartu du. Renault 5a ez baitzen edozein auto: Espainiako eta Euskadiko txapelketak irabaziak zituen jabe banagaz.

Hortxe amaitu zitekeen guztia. Erretiro duin bat izan zitekeen Lebeitiren epilogo, baina gorputzak beste zerbaitez eskatzen zion. “60 urtetik gorako beste batzuk hor badabilta, ni zergatik ez?”, konbentzitu zuen bere burua. Portugalgo autogidari bat 2011ko Renault Megane Trophy bat saltzeko prest zegoela jakin zuen. Birritan joan zen Portugalera tratua ixtera. Horrela, ia erretiratuta egotetik, estatuan beste inork ez zuen auto baten jabe izatera igarozen. Mundu osoan horrelako 37 baino ez daude. “Sentsazio polita da. Aurreko autoa, Renault 5a, neuk bakarrik nuen estatu osoan eta oraingo berriagaz ere berdina gertatzen da”. Autoagaz eta Renault Gaursaren laguntzagaz errepidera itzultzeko prest dago.

## Nokia zaharretik iPhoneera

Auto zaharra eta berria mundu desberdin bi dira. Zaldi kopurutik hasita —aurrekoak 300 zituen eta berriak 400 ditu— ez dute bata bestegaz zerikusirik. “Mugikorrek konparazio bat eginda, aurrekoa Nokia zahar bat bazen,

oraingoa iPhone berri bat da”, azaldu du.

Hainbat tokitatik (Kantabria, Asturias...) lehiatzeko deitu diote. “Jendeak ikusi gura duen autoa da”, esan du. Euskadiko Igoeren Txapelketan parte hartuko du aurten. “Ez dut helbururik. Autora moldatu gura dut. Ez da erraza izango denbora onak lortzea. Baina burugorria naiz eta helduko dira denborak, seguru”, dio pilotu iurretarrak.



Renault Megane Trophy autoa Bilboko Renault Gaursaren dendan ikusgai egon da.

## Garaipen bi kateatu ditu DRTk eta arnasa hartu du sailkapenean

**ERRUGBIA** • J.D.

Errugbiak lokatza elementu eder bihurtzeko ahalmena du. Joan zen asteburuan Eibarrek eta Durango Nissan Gaursak Unbe zelaian eskainitako ikuskizuna errugbiak bakarrik eskaini dezake, zelai lokatzu

batean. Goitik behera lupeztuta, baina pozik amaitu zuten norgehiagoka Nissan Gaursako jokalariek bigarren asteburuz jarraian garaipena lortuta: 17-19. Gaizka Iturriagaetxebarriak eta Antxon Iriondok lortu zituzten durangarren puntuak.

Azken asteburuetako bolada onari esker, DRTk arnasa hartu du beheko postuetan daraman borrokan. Bost jardunaldi gertatzen dira jokatzeko.



Lokatzez beteta, baina garaipenagaz pozik amaitu zuten DRTko jokalariek. Pedro Moreno

## Adituaren txokoa

Alfontso Arroio  
Monasterio  
ETBko  
kirol kazetaria



## Utopia

Haurra telebistari so dago. Be-saulkian eserita, geldi, bere osotasunean bertara iltzatuta balego bezala. Begiek dir-dir egiten diote. Ez du kliskarik egiten, bisia aldiz, ikustekoa. Pantailan agertzen den txirrindulariak liluratuta dauka. Burua lanean hasi zaio eta aurrean dakusana ametsetan hasteko beta eman dio. Berak ere ziklista izan nahi du. Balentria itzelak egingo ditu nagusiagoa denean. Aldapan gora bere dohainak mundu guztiari erakutsiko dizkio eta bere burua Parisko podiumean amesten du.

Bere onera itzuli eta arrapalada batean gurasoenganako bidea hartu du. Bizikleta bat nahi du, baita kaskoa eta maillota ere. Gurasoen harridurarako, haurrak temati jarraitzen du. Zein taldetako maillota nahi duen itaundu ondoren, euskal talderen batena gura duela ihardetsi umeak. “Baina ba ote euskal talderik profesionalen? Euskaltel-Euskadik utzitako hutsunea norbaitek bete al du?” Gurasoen ezjakintasunaz jabetuta, haurrak berehala argitu dizkie zalantzak. “Euskadi izena daraman talde bat bada goela entzun dut”. Aita-amak apeta betetzeko prest daude eta maillota oparitzeko lanean hasi dira.

Norbaitek esan die bat ez, bi talde direla soinean Euskadi izena daramatenak. “Nola da posible? Gure herri txiki honetan bi egitasmo? Zein hautatuko dugu? Berdea ala laranja?” Egoak eta ezin-ikusiak dira gaitz nagusiak. Ez al da posible bata bestearen lana onartu eta bidean bat egitea? Edo, euskal selekzioaren hutsunea beteko duen talde indartsu bakarra eratzea? Haurraren ametsa egia bilakatzea, egun, utopia bat dela deritzot.

Otsailaren 16an  
barikua, 19:00etan

**EUSKLABO ALAIK**

ASISKO URMENTA  
ETA UNAI ITURRIAGA

**SARRERA DOAN!!**

**hitz** artekalea, 23 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

**Mintzaldi Ilustratua**

CERAMICAS  
**MACOBER**

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Chimeneas  
Ceramicas MACOBER

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727



## “Badakit maila gogorra dela; horrek erronka erakargarriago bihurtzen du”

Xabi Sanchez Amorebietako entrenatzaile berriak ez du aldaketa handirik egiteko asmorik



Xabi Sanchez Zornotzako Urritxe futbol-zelaian, eguazteneko entrenamendu saioaren aurretik.

### FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Joseba Etxeberriak Amorebieta futbol kluba utzi eta Teneriferako bidea hartu du asteon. Bigarren Mailako taldearen gidaritza eskaini diote eta onartu egin du. Elgoibartarrak libre utzitako aulkian Xabi Sanchez (Bilbo, 1978) eseriko da asteburuan. Kluba barrutik ezagutzen du eta denboraldia une erabakigarrian sartzera doala ikusita, zuzendaritzak etxeko baten aldeko apustua egitea erabaki du, kanpoan bila hasi beharrean. Denboraldia amaitu arteko akordioa da.

Aurten Amorebieta B taldea entrenatzen egon da Erregional Mailan. Salto handia emango du, baina horrek ez duela “kokiltzen” dio. “Badakit maila gogorra dela, baina horrek erronka erakargarriago bihurtzen du”.

### **Bost urtez Amorebietan jokatu zuen eta Bigarren B Mailarako igoera lortu zuen taldean egon zen**

Bigarren B Mailan entrenatzaile lanetan falta zaion esperientzia guztia jokalarari moduan izan du urte askoan. Amorebietan jokatu zuen bost denboraldiz eta Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara igo zen taldean jardun zuen. Biga-

rren Mailan jokatzera zer den ere badaki, Eibarregaz.

Zornotzatik Portugaletera joan zen eta han eskegi zituen botak. Harrezkero, Amorebietan dabil. Carlos Dokando eta Aitor Larrazabal Amorebieta entrenatzen zeudenean euren talde teknikoko partaide izan zen, besteak beste.

### **Dokando eta Larrazabal entrenatzaile zirela, euren talde teknikoko partaide izan zen Xabi Sanchez**

### **Aldaketa drastikorik ez**

Entrenatzaile bakoitzak bere estilo liburua ekarri ohi du besapean, baina denboraldi erdia ez da aldaketa handiak egiteko unerik egokiena. “Gauzak ahalik eta gutxien ukitzea eta trantsizioa ahalik eta erosoena izatea dira helburuak. Beti gehitu edo aldatu daiteke ñabarduraren bat, baina ideia nagusia orain arteko bideari jarraipena ematea da”.

Amorebieta sailkapeneko 12. postuan dago. Denboraldia eskas hasi eta jaitsiera postuetan egon ostean, gerora gora egin du eta gaur bederatzita puntu dauka amildetia. Hala ere, ez dago lo hartzerik. Zapatuan, 16:00etan, Real Union taldeak bisitatuko du Zornotzako Urritxe futbol-zelaia.

## 2018KO INAUTERIEETAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkia  
anboto.org  
helbidera, otsailaren  
23a baino lehen.  
Webgunean botorik gehien  
duen argazkiaren egileak  
asteburu-pasa bat  
irabaziko du!

Lehiaketaren oinarriak  
www.anboto.org webgunean





# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/MEGOTOIAK	7 ASIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu: [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kortsultatu 94-621 79 02 telefonon.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

##### ETXEBIZITZAK SALDU

**Otxandio.** Etxebizitza salgai Otxandion. 125.000 euro, Mainerrota 7, 3. solairua, 88 m2 ditu eta 3 gela. Tel.: 615-73 92 53 Tel.: 645-70 73 36

#### ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

**Durango.** Alokatzeko pisu bila nabil Durangon. Tel.: 631-62 95 65

**Durango.** Durangon alokairu bila gabilta. Bikote euskaldun, langile eta arduratsua. Epe luzerako etxea nahiko genuke, arrazoizko prezioan. Tel.: 665334503

### GARAJE/TRASTEROAK

#### GARAJE/TRASTELEKUAK SALDU

**Otxandio.** Otxandion garaje plaza itxi bat saltzen da. Tel.: 675-71 72 83

### Lana Formakuntza

#### LAN ESKARIAK

##### LAN ESKARIAK ETXEO LANAK

#### ETXEO LANAK ETA PLANTXA.

Esperientzia handiko emakumeak bere burua eskaintzen du, orduka etxeko lanak eta plantxa egiteko. Tel.: 645706839

#### LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.:663-44 85 68

#### Pertsona nagusiak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita atarrietako garbiketa lanak egiten ere. Kanpoko langilea, lanaldi osoan lan egiteko prest. Tel.:631-10 06 22

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea, asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-16 37 82

#### Umeak zaintzen edo garbiketan lan bila.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo atari zein etxeetako garbiketa lanetan. Baita jatetxeetan sukalde laguntzaile moduan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Lanaldi osoan, gauzei zein orduka lan egiteko prest. Tel.: 696-58 36 71

**Lan bila umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten.** Neska

euskalduna ikasketekin eta esperientziarekin umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest dago. Tel.: 662-36 41 67 Tel.:946-81 39 40

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna eta arduratsua. Tel.: 632-99 02 54

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna eta arduratsua. Tel.: 631-60 94 09

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita jatetxeetan garbiketan edo sukalde laguntzaile moduan ere. Barneko zein kanpoko langilea, lanaldi erdian, osoan, orduka, asteburuetan zein gauzei lan egiteko prest. Tel.: 691-82 93 95

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Eskarmetuduna, lanaldi erdian edo osoan lan egiteko prest. Orduka, asteburuetan edo gauzei lan egiteko prest. Tel.: 691-82 93 95

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 631-60 94 09

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612-24 53 26

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Lanaldi erdian, orduka, asteburuetan zein gauzei lan egiteko prest. Berehala hasteko prest. Tel.: 631-70 05 73

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Lanaldi erdian, orduka, asteburuetan zein gauzei lan egiteko prest. Berehala hasteko prest. Tel.: 631-26 24 82

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsonak zaintzen, baita igeltsero lanetan ere.

Barneko zein kanpo langilea, orduka lan egiteko prest. Tel.:603-68 76 98

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsonak zaintzen edo mendian animaliak zaintzen. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 602-01 61 86

#### Pertsona nagusiak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo ospitaleetan jendea zaintzen ere. Kanpoko langilea orduka zein gauzei lan egiteko prest. Erreferentziak eta esperientzia ditut. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 632-72 50 54

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo ospitaleetan jendea zaintzen ere. Kanpoko langilea orduka zein gauzei lan egiteko prest. Erreferentziak eta esperientzia ditut. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-20 36 07

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo ospitaleetan jendea zaintzen ere. Kanpoko langilea orduka zein gauzei lan egiteko prest. Erreferentziak eta esperientzia ditut. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 632-08 98 52

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Andra arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 632-98 18 22

#### Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea, arratsaldez zein gauzei lan egiteko prest. Tel.: 628-78 93 50

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko edo ordukako langile arduratsua. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-89 17 09

#### Pertsona nagusiak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita etxeetako garbiketa lanak egiten ere. Goizei lan egiteko prest, astelehenetik barikura. Tel.: 606-78 76 78

#### Andra euskalduna lan bila pertsona nagusiak zaintzen.

Andra euskalduna pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak

egiteko prest. Tel.: 659-08 81 85

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Erreferentziaduna. Tel.: 632 66 62 13

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Barneko langilea lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 602-37 72 33

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-85 10 93

#### Umeak eta pertsona nagusiak zaintzen ditut.

Umeak eta pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 677-32 44 51

#### Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.

Barneko zein kanpoko langilea lan bila pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Tel.: 674-57 97 36

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko zein barneko langilea. Tel.: 688-73 55 51

#### Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.

Ordukako langilea lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 682-18 12 74

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Ordukako langilea. Tel.: 683-55 93 63

#### Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, orduka lan egiteko prest. Erreferentziarekin berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612-41 41 40

#### Pertsona nagusiak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-57 16 20

#### Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, astelehenetik barikura lan egiteko prest. Orduka, asteburuetan eta gauzei

lan egiteko prest. Tel.: 631-70 05 73

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Pertsonak zaintzen lan bila nabil, nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, orduka, gauzei eta asteburuetan lan egiteko prest. Eskarmetuekin eta berehala lanean hasteko prest. Tel.:631-26 24 82

#### Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka, asteburuetan eta gauzei lan egiteko prest. Eskarmetuekin eta berehala lanean hasteko prest. Tel.: 602-39 60 93

#### Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka, gauzei edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-99 02 54

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Ordukako, asteburuetako edo gaueko langilea. Esperientziaduna. Tel.: 631-60 94 09

#### Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Kanpoko langilea lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile lanetan ere. Tel.: 602-86 43 76

#### Lan bila nabil mendian edo zurgin lanetan.

Lan bila nabil mendian edo zurgin lanetan. Baita era, eraikuntzako laguntzaile moduan. Tel.: 631-54 41 25

#### Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.

Ordukako langilea lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.: 681-35 79 04

### LAN ESKARIAK IRAKASKUNTZA

#### Klase partikularrak ematen ditut.

Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezkuntza eta DBH partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40

#### Italiera klaseak ematen ditut.

Italiera klase partikularrak ematen ditut, interesa duten pertsonentzat, taldeentzat zein Erasmusen doazententzat. Han jaioa naiz, eta esperientzia daukat. [la.gabriele@gmail.com](mailto:la.gabriele@gmail.com)



## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozaturango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, **Enara!**  
Ondo pasa zure urtebetetzean!  
Musu haundi bat familiaren partez!



Zorixonak, **Intza**, laztantxu! Bixer zure urtegunen, 8 urte handi. Ze ederra zu hasten ikustie! Ondo-ondo ospatu! Maite zaitugun danon partez.



**Aitorrek** eta **Danelek** urteak egiten dituzte otsailean. Hamaika zorion bixoi!



Zorionak, **Paule!** Zure alaitasuna, gure botikaririk onena! Muxu potolo bat familiaren partez!


## Botikak

<b>BARIKUA, 9 - 09:00-09:00</b>
<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>
<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrangoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>ZAPATUA, 10 - 09:00-09:00</b>
<b>MUGICA</b> Andra Maria 9 - <b>DURANGO</b>
<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-13:30</b>
<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>
<b>ETXEBARRIA</b> Montevideo etorb. 2. - <b>DURANGO</b>
<b>BALENCIAGA</b> Ezkurdi plaza 8 - <b>DURANGO</b>
<b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>
<b>SAGASTIZABAL</b> Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>
<b>BAZAN DIAZ</b> Urbarri 5 - <b>DURANGO</b>
<b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>
<b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - <b>DURANGO</b>
<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>

<b>EGUREN, ISABEL</b> Trañabarren 15. - <b>ABADIÑO</b>
<b>JAIO-OLABARRIETA</b> Errekakale 6. - <b>ELORRIO</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrangoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>DOMEKA, 11 - 09:00-09:00</b>
<b>ETXEBARRIA</b> Montevideo etorb. 2. - <b>DURANGO</b>
<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrangoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>ASTELEHENA, 12 - 09:00-09:00</b>
<b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrangoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>

<b>MARTITZENA, 13 - 09:00-09:00</b>
<b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - <b>DURANGO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrangoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>EGUAZTENA, 14 - 09:00-09:00</b>
<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrangoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>EGUENA, 15 - 09:00-09:00</b>
<b>SAGASTIZABAL</b> Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrangoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>

## Eskelak



Jose Martin Urrutia, 'Txotxe'

Zure pozimak sorgindu du betirako gure eszenatokia, gure musika, gure bihotza... eskerrik asko, Txotxe!

Zure lagun musikadunak

**Harria, herria, hitza eta orria.**  
Mila esker urteotan eman diguzun guztiagatik

ANBOTOkoko lan taldea



## Botikak

BARIKUA 🌡️ 6° / - 2° ☁️	ZAPATUA 🌡️ 6° / 3° ☁️	DOMEKA 🌡️ 9° / 3° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 6° / 0° ☁️
MARTITZENA 🌡️ 7° / 1° ☁️	EGUAZTENA 🌡️ 11° / 4° ☁️	EGUENA 🌡️ 9° / 3° ☁️	BARIKUA 🌡️ 13° / 3° ☁️



## “Etxera heltzen ere lagundu diot bateren bati, bai, baina gutxi izan dira; formal ibiltzen dira hemen”

Concha Lozano Meson tabernako ‘amama’-ri emango diote 2018ko Barrizten Saria, gaur; “Ostatutaren ospe eta izen ona” nabarmendu du Abadiñoako Barrizten kultur elkarteak

**AKUILUA** • AITZIBER BASAURI

**Otsailaren 4an 83 urte bete zituen Concha Lozanok, Meson tabernako ‘amama’-k. Lanean ospatu zuen urteguna. Gaur, berriz, Barrizten kultur elkarteak emandako saria jasoko du. Errota kultur etxean egingo dute ekitaldia, 20:00etan. ‘Amama’-ren “karisma eta izaera berezia” azpimarratu dute elkarte-koek; eta “batez ere, langile nekazina” izatea. 39 urte dira Meson taberna zabaldu zutela.**

**Barrizten saria emango dizute. Nola hartu duzu albistea?**

Ez dut batere ondo hartu, egia esan behar badut. Ez zaizkit horrelako gauzak gustatzen. Maite naute herrian, “biloba” piloa ditut, eta pozten naiz, baina...

**Biloba piloa dituzu, bai... Matienako ‘Amama’ zara. Nola daramazu?**

Matiena eta Abadiñoako ‘Amama’ naiz, bai. Oso ondo daramat! Nire biloba jaio zenean, bezeroak senarra zenari eta bioi aittitta eta amama deitzen hasi ziren, eta gaur egun inork ez dit Concha deitzen. Herritarren partetik maitasuna jaso dut beti, gazteen partetik ere handia; inork ez dit inoiz errespetua galdu. Bilobak 27 urte ditu dagoeneko eta irakaslea da Alemanian.

**Oso ezaguna zara auzoan. Zenbat belaunaldiri eman diezu jaten?**

Ez dakit esaten. Gaur egun aitita diren batzuk erratza ere pasatu dute tabernan, ezkondu baino lehen. Jokoan egitera etortzen ziren senarra nuenagaz. Bilobekin datoz orain.

**Nola gogoratzen dituzu taberna zabaldu zenueneko sasoiak?**

39 urte dira Meson taberna zabaldu genuela. G.A.C.-ko langileen greba amaitu zenean zabaldu genuen guk. Orduan amaitu genituen taberna zabaltzeko lan guztiak.

Aurretik, G.A.C.-ko langileei uzten genien tokia, erabili zezaten. Baita AEKri ere, jaietan taberna zabaltzeko. Justu aurrean, errepidea pasatuta dugun lokal bat ere utzi izan diogu AEKri erabili zezaten.

**Oraindik ere etortzen zara tabernara, goizean goiz...**

Patata-tortillak egitera etortzen naiz, ordu batzuetarako. Sekreturik ez du horrek: arrautza, patata eta olio ona erabiltzea, ez du besterik behar! Baina tabernan ez naiz egoten. Alabak darama taberna, eta berak zabaltzen du. 04:00ak inguruan etortzen naiz, eta 09:00ak aldera banoa. Sasoi batean, sukaldeaz arduratzen nintzen. Tabernan egon beharra bazegoen, egoten nintzen, baina beti senarragaz edo seme-alabekin, inoiz ez bakarrik. Familia osoa ibili gara tabernan, geurea da eta zaindu behar dugu.

**Hala ere, zeu zara oraindik Meson tabernako arima?**

Ez dakit, ba! Alaba arduratzen da tabernaz. Sukaldea izan da nire lana. Betidanik kozinatu izan dut.

**Asko aldatu**

**dira gauzak azken 39 urte hauetan?**

Ez, tabernak berdin jarraitzen du, eta bezeroek ere bai; beti izan dira oso jatorrak. Oso ondo tratatu gaituzte eta geuk ere ahal izan duguna egin dugu. Ez dut inolako kezarik. Hemen denak izan dira eta dira etxekoak!

**Eguna argitu aurretik zabaltzen duzue taberna. Asteburuan ere bai. Denetarik bezeroak izango dituzue ordu txikietan...**

Lanera doazenak dira goiztiarrenak, eta lanorduak amaituta etxera doazenak. Asteburuan, parrandan ibili ostean etxera joan a u -

rretik ogitartekoaren bila etortzen dira batzuk. Ogiaren bila bidaltzen ditut eta, bien bitartean, zerbait prestatzen diet jateko.

**Etxera heltzen ere lagundu diozu bati baino gehiagori...**

Bateren bati bai, baina gutxi izan dira. Formal ibiltzen dira hemen! Nahikoa edanda etorri direnei ere askotan esan izan diet kafea emango niela edo, bestela, etxera joateko. **Pasarteak asko izango dituzu go-goan. Kontatzeko modukorik?**

Ez pentsa! Ez dut gogoan.

**Sanprudentzioetan jai hartzen duzu?**

Ez, beti egon behar dut tabernan, dena antolatzeko, ia garbi dagoen ikusteko. Asko kontrolatzen diet nik hori. Ia dena garbi-garbi dagoen ikusten dut. Nik denbora asko dut libre, zer egingo dut, ba! Ibiltzea gustatzen zait, baina azkenaldian daukagun eguraldi honegaz...

**Bigarren etxea duzu taberna?**

Lehenengo etxea dut taberna. Esanda diet seme-alabei ni naizen bitartean taberna zabalik mantentzeko; ez nagoenean, egin dezatela gura dutena. Galizian ere badut etxea, oso polita, eta abuztua han igarotzen dut. Itxita izaten dugu taberna, baina, hori bai, zabaltzeko egunean hemen nago berriro. Junquera de Espadañedokoa (Ourense) naiz eta han pasatzen dut abuztua; abenduaren hasieran txerri-hiltzera joaten naiz, ahizparen etxera.

**Duela urte batzuk sanprudentzioetan ere egin zizuten omenalditxoak. Nola gogoratzen duzu?**

Bai. Sorpresa izan zen. Hala ere, ni etxekoa naiz gehigo jaietakoa baino, eta horrelakoetan jendearen agerian jartzen zaituzte... Batak eta besteak han edo hemen ikusi nautela esaten didate eta, esan dudan moduan, ez naiz batere zalea.

**Concha Lozano Belmonte**  
Meson Tabernako ‘Amama’  
Ourense| 1935

**Lauhortza**

Uxune Martinez  
Mazaga  
Soziologoa



**E-MA-KU-ME-AK**

Asmatzaileak: Berta Benzek automobilteko balaztako zapatak asmatu zituen 1890ean, Mary Andersonek haizetakoa 1903an eta Florence Lawrencek keinuarria 1923an. Hedy Lamarrek komunikazio sekreturako sistema bat asmatu zuen 1941ean; WiFiaen abiapuntua izan zen.

Bidaiariak: Maria Sibylla Merian Afrikara joan zen flora eta fauna aztertu eta irudiz jasotzen XVII. mendean. Fanny Bullock Workmanek Mont Blanc igo zuen 1891n eta Himalaiako kartografia jaso zuen 1898an. Marianne Northek mundua zeharkatu zuen 1871tik 1875era, landareen ilustrazioak egiteko.

Lurtarrak: Mary Anningek Jurasikoko iktosaurioaren hezurdura topatu zuen XIX. mendean. Inge Lehmanek Lurraren barne nukleoak bi zati zituela antzeman zuen 1936an. 1959an Ipar Atlantikoko hondoaren lehen mapa egin zuen Marie Tharpek.

Osasuntsuak: Mary Wortley Montaguek baztangari aurka egiteko inokulazioa bideratu zuen European 1721ean. Ura iragazteko tratamenduak aplikatzeko lehen laborategia eraiki zuen Ellen Swallow Richardsek XIX. mendean. Nettie Stevensk zelulen egitura kromosomikoa (X, Y) aurkitu zuen XX. mende hasieran. Jaioberri goiztiarren heriotzen arrazoiak detektatzeko APGAR testa asmatu zuen Virginia Apgarrek 1950eko hamarkadan.

Teknologoak: Joan Clarkek Bigarren Mundu Gerran, nazien Enigma makinaren mezuen kodea antzeman zuen. Annie Easleyek espazioko zundak aireratzeko bideak urratu zituen XX. mendean. Radia Perlmanek Internet eratzeko beharrezkoa den STP protokoloa diseinatu du.

Otsailaren 11n Zientzia arloko Emakume eta Neskatoen Nazioarteko Eguna ospatzen da munduan. Atzoko, gaurko eta etorkizuneko emakume zientzialarien omenez: gora zientziaz beteriko

E-MA-KU-ME-AK!



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722